

Ley 48/2003, de 26 de noviembre, de Régimen Económico y de Prestación de Servicios de los Puertos de Interés General.

(Edición cerrada al 31 de diciembre de 2009)

EXPOSICIÓN DE MOTIVOS

I

Transcurrida una década desde la aprobación de la Ley de Puertos del Estado y de la Marina Mercante de 1992, se han producido diversos acontecimientos y nuevas realidades económicas que justifican la renovación legislativa que con esta ley se acomete.

La década de los años 90 ha sido un período de enorme aceleración del proceso de mundialización de la economía y el comercio, así como de consolidación del mercado interior comunitario y de desarrollo de una política común de transportes planificada desde una concepción multimodal.

Ello ha incrementado de forma notable la importancia estratégica de los puertos comerciales, como instrumentos claves para el desarrollo de la economía productiva y elementos fundamentales de un sistema de transporte de interés general ambientalmente sostenible.

Este período de desarrollo económico motivado, entre otras causas, por los anteriores procesos, está produciendo crecimientos importantes y sostenidos en la demanda de transportes, tanto a escala europea como mundial.

Así, desde 1990, los tráficos portuarios han crecido en España desde 248 millones de toneladas hasta los 348,6 millones de toneladas en 2001, lo que representa un crecimiento en una década superior al 42 por ciento en términos absolutos y un crecimiento medio anual acumulado superior al 3,2 por ciento; es decir, valores superiores al aumento del Producto Interior Bruto (PIB) nacional.

A su vez, la cuota de participación de los tráficos import-export en los tráficos

Azaroaren 26ko 48/2003 Legea, Interes Orokorreko Portuen Araubide Ekonomikoari eta Zerbitzuak Emateari buruzkoa.

(2009ko abenduaren 31n itxitako argitaraldia)

ZIOEN AZALPENA

I

Estatuko Portuei eta Merkataritzako Marinari buruzko Legea 1992an onetsi zenetik hamarkada bat igaro ondoren, gertaera desberdinak eta errealitate ekonomiko berriak eman dira, justifikatzen dutenak lege honek legerian gauzatu beharreko berriztatzea.

90eko hamarkada izan da ekonomiaren eta merkataritzaren mundializazio-prozesua modu nabarmenean bizkortzeko aldia, bai eta Europako Erkidegoko barne merkatua egonkortzeko eta ikuspuntu multimodal batetik garraio-politika erkidea garatzeko aldia ere.

Horrek modu esanguratsuan gehitu du merkataritzako portuen garrantzia estrategikoa, dela ekoizpen-ekonomia garatzeko oinarrizko tresna gisa, dela ingurumenari dagokionez jasagarria den garraio-bide-sistemaren oinarrizko osagai gisa.

Ekonomia-garapen aldi hori, beste arrazoi batzuen artean, aurreko prozesuek eratorritakoa, eragiten ari da garraio-eskaria nabarmen eta modu iraunkorrean haztea, Europa nahiz mundu mailan.

Bada, 1990etik, portu-trafikoak Espainian igo dira 248 milioi tonatik 348,6 milioi tonara arte 2001ean. Horrek agertzen du, oro har, hamarkada batean, igoera ehuneko 42tik gorakoa izan dela eta urteko batez besteko igoera guztira ehuneko 3,2 baino gehiago izan dela; bestela esanda, balio horiek daude nazioko Barne Produktu Gordinak (BPG-k) izandako gehikuntzaren gainetik.

Era berean, hamarkada horretan, import-export trafikoetako partaidetza-kuota portu-

portuarios totales ha aumentado en esta década del 70 al 80 por ciento, lo que representa mayores porcentajes de crecimiento de los tráficos portuarios asociados al transporte internacional de mercancías.

En la actualidad, casi el 59 por ciento de las exportaciones y el 82 por ciento de las importaciones españolas pasan por los puertos de interés general, lo que representa el 53 por ciento del comercio exterior español con la Unión Europea y el 96 por ciento con terceros países.

En este marco, la competitividad de nuestra economía depende, cada vez más, de un sistema de transporte y de unos puertos eficaces y baratos completamente integrados en el mismo, capaces de mover mercancías de una forma rápida, fiable, económica y segura.

Por otra parte, el desarrollo que están experimentando las redes transeuropeas de transporte, los cambios tecnológicos y estratégicos en el sector del transporte en general, y en el marítimo en particular, y los procesos de creciente liberalización del mercado de los servicios del transporte han intensificado la competencia interportuaria, tanto a nivel nacional como internacional, por atraer los tráficos marítimos internacionales, así como la competencia intraportuaria entre los distintos prestadores de servicios portuarios en un puerto.

Estos procesos están permitiendo la existencia de una oferta portuaria diferenciada en los mercados, que han propiciado en los puertos la introducción de nuevas tecnologías, especialización y automatización de procesos.

Ello se ha producido, en gran parte, gracias a la positiva interacción de la iniciativa pública y privada, en la medida en que esta última ha ido asumiendo progresivamente la prestación de los servicios portuarios.

A este proceso, las Autoridades Portuarias han aportado un impulso decidido hacia el desarrollo de una nueva cultura portuaria, basada en una visión compartida del carácter global de la oferta portuaria y en el

trafiko osoan gehitu da, ehuneko 70etik 80ra; horrek agerian uzten du merkatu-gaiaren nazioarteko garraiara bildutako portu-trafikoek hazkunderari begira ehuneko-tasa handiagoak dituztela.

Gaur egun, Espainiako esportazioen ia-ia ehuneko 59 eta inportazioen ehuneko 82 interes orokorreko portuetatik zehar igarotzen da; kopuru horiek osatzen dute Espainiako kanpo merkataritzaren ehuneko 53, Europar Batasunari begira, eta ehuneko 96 hirugarren estatuei begira.

Esparru horretan, gure ekonomiaren lehiakortasunak gero eta gehiago behar ditu garraio-sistema eta portu eragingarri eta merkeak; portu horiek garraio-sisteman erabat barneratu behar dira, eta gai izan behar dira merkatu-gaiak modu azkarrean, fidagarrian, ekonomikoan eta seguruan mugitzeko.

Bestalde, garraioaren sare transeuroparrak izaten ari diren garapenak, garraioaren sektorean orokorrean, eta, bereziki, itsas garraioan, dauden aldaketa teknologiko eta estrategikoen, eta garraio-zerbitzuen merkatuek liberalizaziorako duten joera hazkorrak areagotu dute portuen arteko lehia, nazio mailan nahiz nazioartean, nazioarteko itsas trafikoak erakartzeko, bai eta portu berean portu-zerbitzuak ematen dituztenen arteko lehia ere, portu barruan.

Prozesu horiek ahalbidetzen ari dira merkatuetan portu-eskaintza desberdinak izatea; horrek berarekin ekarri du portuetan teknologia berriak, espezializazioa eta prozesuen automatizazioa sartzea.

Hori gertatu da, eskuarki, ekimen publikoaren eta pribatuaren arteko elkarrekintzari esker, azken horrek ezarizarian bereganatu baitu portu-zerbitzuak emateko ardura.

Prozesu horretan, Portu Agintaritzek bultzatu dute portu-kultura berria, oinarri dituen portu-eskaintzaren izaera oro hartzailea banatzeko ikuspegia eta portu-erkidegoaren kontzeptua; eta, bestalde,

concepto de comunidad portuaria; y, por otro lado, aportando, igualmente, un impulso decisivo en el campo de la innovación y del fomento de la actividad portuaria, protagonizando la promoción de estrategias globales, basadas en la mejora continua de los procedimientos y de los servicios, en la permanente búsqueda de fórmulas que permitan mejorar la competitividad del conjunto del puerto.

En definitiva, este modelo de colaboración público-privado, que permite aunar el interés general y los intereses privados, ha constituido y constituye un factor clave de dinamización de la actividad portuaria, que se debe consolidar y potenciar, posibilitando afrontar con mejores garantías el nuevo escenario de competencia intermodal e interportuario.

Así pues, durante esta década los puertos comerciales han reforzado su carácter de elementos esenciales del sistema de transporte de interés general, así como su importancia estratégica para el desarrollo de la economía productiva y el comercio exterior particularmente en un país como España de carácter periférico respecto a los grandes centros europeos de producción y consumo.

Existe hoy más que nunca la convicción de que los puertos comerciales no son únicamente un espacio de dominio público marítimo-terrestre en el que desarrollar cualquier tipo de actividad económica relacionada con el tráfico marítimo, sino infraestructuras que se integran como parte fundamental en un sistema general de transporte de carácter intermodal, sostenible y competitivo, constituyendo nodos de interconexión modal y plataformas logísticas con un importante papel tanto en la cadena de transporte como en la cadena de valor.

Estas y otras transformaciones de los puertos y de los sistemas de transporte en los que se integran están en la base de la reforma legislativa que se acomete que, partiendo del actual modelo del sistema portuario estatal cuyo probado funcionamiento ofrece una base sólida sobre la que progresar, se dirige

Portu Agintaritzek erabat bultzatu dute, baita ere, berrikuntza eta portu-jarduera suspertzea, nagusitasuna emanaz estrategia oro hartzaileak sustatzeari, estrategia horien oinarri dela prozeduren eta zerbitzuen jarraikako hobekuntza, portu osoaren lehiakortasuna hobetzea ahalbidetzen duten formulak etengabe bilatzeko.

Azken buruan, publikoaren eta pribatuaren arteko eredu horrek, interes orokorra eta interes pribatuak bateratzea ahalbidetzen duenak, eratu eta eratzen du portu-jarduera dinamizatzeko oinarrizko faktorea, sendotu eta indartu behar dena, intermodala eta portuen artekoa den lehiamota berriari berme hobeekin aurre egitea ahalbidetzeko.

Halatan, hamarkada honetan zehar, merkataritzako portuek indartu dute oinarrizko osagaiaren izaera interes orokorreko garraio-sistemari begira, bai eta garrantzia estrategikoa ere, ekoizpen-ekonomiari eta kanpo merkataritzari begira, batik bat, Espainia moduko herrialde periferiko batean, Europako ekoizpen- eta kontsumo-zentro handiei dagokienez.

Gaur egun, inoiz baino gehiago, ustea da merkataritzako portuak itsas trafikoarekin zerikusia duen edozein jarduera ekonomiko gauzatzeko itsas-lehorreko jabari publikoko eremuak ez ezik, azpiegiturak ere badirela, intermodala, jasangarria eta lehiakorra den garraio-sistema orokor baten oinarrizko zati izanik; hurrean ere, merkataritzako portuek interkonexio modaleko nodoak eta plataforma logistikoak eratzen dituzte, garraio-katean nahiz balio-katean egiteko garrantzitsua dutenak.

Portuen eta portuak biltzen dituzten garraio-sistemen transformazio horiek eta beste era bateko transformazioak legeria-eraldaketaren oinarri dira. Gaur egungo estatuaren portu-sistemaren eredua da eraldaketa horren abiapuntu, egiaztatutako jardunbideak eskaintzen duen oinarri sendoaren ondorioz. Bada, eraldaketa

especialmente a dotar a los puertos españoles de interés general de un marco jurídico consistente y estable en el ámbito del régimen económico-financiero y tributario, al tiempo que profundiza en la regulación del régimen de prestación de servicios y del dominio público portuario, atendiendo a la nueva situación de los mercados y a las políticas económicas y de transportes nacionales y europeas, que aumentan el protagonismo de los puertos y del transporte marítimo en las redes transeuropeas de transporte y favorecen el desarrollo de cadenas logísticas multimodales marítimo-terrestres competitivas.

Este marco jurídico regula los regímenes económico-financiero, de prestación de servicios y de utilización del dominio público para potenciar la posición competitiva de los puertos españoles en un contexto del sector del transporte, internacional y europeo, globalizado, abierto y liberalizado, garantizando los principios de libre competencia inter e intra portuaria de acuerdo con las características de los tráficos y el número y tamaño de nuestros puertos.

Para ello, esta ley subraya los factores o criterios de rentabilidad y eficiencia en la explotación del dominio público portuario y apuesta decididamente por la promoción e incremento de la participación de la iniciativa privada en la financiación, construcción y explotación de las instalaciones portuarias y en la prestación de los servicios portuarios a través del otorgamiento de los correspondientes títulos habilitantes.

En definitiva, se contempla el marco jurídico actual mediante la incorporación de nuevos mecanismos que tienen por objeto potenciar la calidad y eficacia en la prestación de los servicios portuarios y comerciales, favoreciendo la reducción global efectiva del coste del paso de las mercancías por los puertos, en línea con las propuestas y criterios incluidos en la política europea de transportes y, en particular, que fomente el cabotaje comunitario y potencie las ventajas de la

horren helburua da Espainiako interes orokorreko portuentzako esparru juridiko sendoa eta egonkorra ezartzea ekonomia-finantzen eta tributuen araubidearen esparruan; orobat, eraldaketak sakondu du zerbitzuak emateko araubidearen eta portuko jabari publikoaren arauketan, kontuan hartuta merkatuen egoera berria eta ekonomia- nahiz garraio-politika nazional eta europarrak, halakoek garraioaren sare transeuroparretan portuen eta itsas garraioaren garrantzia gehitu eta itsas-lehorreko kate logistiko multimodal lehiakorren garapena ahalbidetzen duten heinean.

Esparru juridiko horrek ekonomia-finantzen, zerbitzu-emateen eta jabari publikoa erabiltzearen inguruko araubideak arautu ditu, Espainiako portuen lehiakortasuna indartzeko, nazioartekoa eta europarra, globalizatua, irekia eta liberalizatua den garraio-sektorean; horretarako, bermatu dira portuen arteko eta portu barruko lehia askearen printzipioak, aintzat hartuta trafikoen ezaugarriak eta gure portuen kopurua eta tamaina.

Horretarako, lege honek nabarmendu ditu portuko jabari publikoa ustiatzean izan beharreko errentagarritasun eta efizientzia faktore edo irizpideak, eta erabateko apustua egin du ekimen pribatuaren parte hartzea sustatu eta gehitzeko portu-instalazioen finantzaketan, portu-instalazioen eraikuntza eta ustiapenean eta portuko zerbitzuak ematean, kasuan kasuko ahalbidetze-tituluak emanda.

Labur-zurrean esanda, egungo esparru juridikoari eutsi zaio, baina mekanismo berriak gehituta; mekanismo horien xede dira, portuko eta merkataritzako zerbitzu-emateen kalitatea eta eragingarritasuna indartzea, merkatu-gaiak portuetatik igarotzearen ondoriozko kostua oso-osoan murriztea ahalbidetuz, garraioei begira Europako politikaren proposamen eta irizpideen haritik, eta, bereziki, Europar Erkidegoko kabotajea suspertzea eta Espainiako portuek nazioarteko itsas

situación geoestratégica de los puertos españoles para el tráfico marítimo internacional.

Los elementos clave que desarrolla esta ley para conseguir los objetivos perseguidos son:

El desarrollo de la competencia interportuaria, potenciando la autonomía de gestión económico-financiera de los organismos públicos portuarios sobre los principios de autosuficiencia económica y de cobertura de costes por transferencia de los mismos a los usuarios bajo principios homogéneos y no discriminatorios basados en la recuperación de los costes de explotación, los costes externos y los costes de las nuevas inversiones.

La potenciación de la competencia intraportuaria a través de la regulación de la prestación de los servicios portuarios por parte de la iniciativa privada en un régimen de libertad de acceso.

La introducción de importantes y novedosos elementos en la regulación de la gestión del dominio público portuario para conseguir un completo desarrollo del modelo concesional que favorezca la máxima rentabilización socioeconómica de este dominio público dentro de los usos portuarios.

El incremento de la inversión privada en las instalaciones y equipamientos portuarios fomentada con una regulación económica clara y estable en el tiempo, que permita la planificación financiera de esas inversiones a largo plazo.

La disminución de costes del sistema portuario español para mejorar la competitividad y la capacidad de inversión de las infraestructuras al tratarse de un sistema económicamente autosuficiente.

II.

La ley se estructura a través de cuatro títulos, que regulan el régimen económico del sistema portuario estatal; el régimen de planificación, presupuestario, tributario, de funcionamiento y de control; la prestación de servicios y el dominio público portuario estatal.

trafikoari dagokionez duten kokaleku geoestrategikoaren abantailak indartzea.

Lege honek bere helburuak lortzeko garatzen dituen oinarritzko osagaiak dira:

Portuen arteko lehia garatzea, portuetako erakunde publikoen ekonomia-finantzen kudeaketa-autonomia indartuz, kontuan hartuta autosufizientzia ekonomikoaren eta erabiltzaileei egindako transferentziaren bidez kostuak estaltzearen printzipioak, horretarako aplikatuko direla ustiatze-kostuak, kanpoko kostuak eta inbertsio berrien kostuak berreskuratzea helburu duten printzipio homogéneo eta bereizkeriarik gabekoak.

Portuen arteko lehia indartzea, ekimen pribatuak portu-zerbitzuak emateari buruzko arauketa eginez, non zerbitzu horiek eman ahal izateko askatasun-arabidea nagusituko den.

Portuko jabari publikoa kudeatzeko arauketan osagai garrantzitsuak eta berritzaileak sartzeko, emakiden-eredua erabat garatzea lortzeko, portuko erabileren artean jabari publiko horren errentagarritasun sozioekonomikorik handiena ahalbidetze aldera.

Inbertsio pribatua gehitzea portuko instalazio eta ekipamenduetan, gehikuntza hori suspertuko dela denboran iraungo duen arauketa ekonomiko argi eta egonkorraren bidez, epe luzera inbertsio horien finantzaketa planifikatzea ahalbidetzeko moduan.

Espainiako portu-sistemaren kostuak murriztea, azpiegiturei dagokienez lehiakortasuna eta inbertsio-gaitasuna hobetzeko, sistema hori ekonomiaren aldetik autosufizientea den heinean.

II.

Legea egituratzen da lau titulutan, arautu dutenak estatuaren portu-sistemaren arabide ekonomikoa, plangintza-, aurrekontu-, tributario-, jardunbide- eta kontrol-arabidea; zerbitzu-ematea eta estatuaren portuko jabari publikoa.

También se incluyen diecinueve disposiciones adicionales, once transitorias, cinco finales, una disposición derogatoria y se acompaña a la ley un nuevo anexo de clasificación de mercancías.

El título I de la ley dedica su capítulo I a proclamar los principios y objetivos del régimen económico, que son, a la postre, los ejes vertebradores de la ley, y se desarrollan a lo largo del articulado también en el régimen de prestación de servicios y en la gestión del dominio público portuario estatal.

Además, la ley viene a dar respuesta a dos tipos de necesidades.

En primer lugar, compatibiliza la doctrina constitucional establecida por la STC 185/1995, de 14 de diciembre, sobre lo que debe entenderse por prestaciones patrimoniales impuestas de carácter público con el nuevo modelo de gestión de los puertos y con las exigencias del actual mercado internacional del tráfico marítimo.

En segundo lugar, pretende conseguir una mejor adaptación del sistema tarifario en su conjunto a la mencionada doctrina, teniendo en cuenta la experiencia acumulada en la financiación de nuestro sistema portuario.

Por lo que se refiere al primero de estos aspectos, la Ley 62/1997, de 26 de diciembre, adaptó los cánones portuarios a la doctrina que se deriva de la STC 185/1995, de 14 de diciembre.

Ahora, en el nuevo modelo, la ley es consciente de la necesidad de dotar a dicho sistema de la necesaria flexibilidad en la fijación de la cuantía de las prestaciones cobradas por la utilización del dominio y por la prestación de servicios portuarios.

Así lo exige la intensa competencia desarrollada a nivel internacional.

Por ello, es procedente compatibilizar las exigencias de la reserva de ley con la citada flexibilidad.

Para lograr dicha compatibilización, la nueva ley incorpora, con creces, el mínimo de regulación exigido por la doctrina

Halaber, barneratu dira hemeretzi xedapen gehigarri, hamaika xedapen iragankor, bost azken xedapen eta xedapen azkentzaile bat, eta legearekin batera merkatu-gaiak sailkatzeko eranskin berria jaso da.

Legearen I. tituluak bere I. kapituluaren arabide ekonomikoaren printzipioak eta helburuak adierazi ditu, azken batean, printzipio horiek baitira legearen ardatz nagusiak, eta artikuluetan zehar garatu dira halakoak, baita zerbitzuak ematearen inguruko araubideari eta estatuaren portuko jabari publikoa kudeatzeari dagokienez ere.

Halaber, legeak bi beharrizan-motari erantzun die.

Lehenengo eta behin, bateragarri egin ditu abenduaren 14ko 185/1995 KAEn ezarritako konstituzio-doktrina, izaera publikoko ondare-prestazio ezarriez ulertu behar denari buruzkoa, eta portuak kudeatzeko eredu berria eta gaur egun itsas trafikoaren nazioarteko merkatuak dituen betekizunak.

Bigarrenik, lortu nahi du tarifa-sistema oso-osoan hobeto egokitzea aipatu doktrinara, kontuan hartuz gure portu-sistema finantzatzeko orduan urte askotako esperientzia dagoela.

Inguruabar horietarik lehenengoari erreparatuz, abenduaren 26ko 62/1997 Legeak portu-kanonak egokitu zituen abenduaren 14ko 185/1995 KAEn eratorritako doktrinara.

Orain, eredu berrian, legea jakitun da sistema horrek behar besteko malgutasuna behar duena, jabaria erabiltzeagatik eta portu-zerbitzuak emateagatik kobratutako prestazioen zenbatekoa ezartzean.

Hori berori galdatzen du nazioarte-mailan gauzatutako lehia biziak.

Hori dela eta, bidezkoa da lege-erreserbaren eskakizunak bateratzea aipatu malgutasunarekin.

Bateragarritasun hori lortzeko, lege berriak erraz gainditu du konstituzio-doktrinak galdatutako gutxieneko arauketa,

constitucional, garantizando la prohibición de cualquier discrecionalidad o libre actuación de las Administraciones portuarias.

Pero, asimismo, y dentro de los límites marcados por dicha doctrina, permiten un margen de maniobra suficiente a aquéllas para que, en función de criterios técnicos y de mercado, fijen la cuantía concreta y singular de cada una de las tasas y, en particular, de las bonificaciones para potenciar a España como plataforma logística internacional y para la captación de tráficos internacionales.

Por lo que se refiere al segundo de los aspectos señalados, la regulación de las tarifas necesitaba de una revisión conjunta a la luz de la mencionada doctrina constitucional y en la línea mantenida por las últimas normas legales promulgadas en la materia.

Por ello, esta ley tiene, entre uno de sus objetivos, configurar adecuadamente los recursos económicos portuarios, siempre dentro del debido respeto al principio de reserva de ley, cuando sea necesario.

Para conseguir el objetivo anterior, la ley se ha decantado por un sistema económico donde también encontramos, como en el anterior, tasas y precios privados, pero con un avance en el actual modelo de gestión en el que se concibe a las Autoridades Portuarias, además de como promotoras de estrategias globales tendentes a establecer y profundizar en las ventajas competitivas de los puertos atribuidos a su gestión, como proveedoras de infraestructuras y reguladoras del dominio público y, en el caso de los servicios portuarios básicos, sólo subsidiariamente como prestadoras de servicios.

Así las antiguas tarifas de servicios que implicaban la utilización del dominio público se convierten, previa redefinición de sus hechos imposables, en verdaderas tasas por utilización especial de las instalaciones portuarias, desapareciendo en ellas la actividad prestacional.

De otro, también alcanzan dicha calificación las prestaciones exigibles por aquellos servicios —escasos,

portuetako Administrazioen edozein nahierakeria edo jardun aske debekatzen dela bermatuz.

Baina, era berean, eta doktrina horrek ezarritako mugen barruan, portuetako Administrazioei jarduteko behar besteko tartea utzi zaie, irizpide tekniko eta merkatuko irizpideen arabera, tasa bakoitzaren zenbateko zehatz eta bereziak ezar ditzaten eta, batez ere, hobariei dagokienez, Espainia nazioarteko plataforma logistika gisa indartzeko eta nazioarteko trafikoak jasotzeko.

Aipatutako inguruabarretatik bigarrenari dagokionez, tarifen arauketak baterako berrikuspena behar zuen, aipatu konstituzio-doktrinaren arabera, eta gai horren inguruan azken aldi honetan aldarrikatutako arauen ildotik.

Horregatik, lege honen helburuen artean dago behar bezala egituratzea portuetako baliabide ekonomikoak, betiere, legerreserbaren printzipioa errespetatuta, beharrezkoa denean.

Aurreko helburu hori lortzeko, legeak sistema ekonomiko baten alde egin du; bertan, aurreko sisteman bezala, tasak eta prezio pribatuak daude, baina kudeaketa-eredu berrian aurrerapausoa eman da, Portu Agintaritzak aintzat hartu baitira, dela beraiek kudeatu beharreko portuen lehiakortasunerako abantailak ezartzeko edo halakoetan sakontzeko estrategia orokorren sustatzaile gisa, dela azpiegituren hornitzaile eta jabari publikoaren arautzaile gisa, dela oinarrizko portu-zerbitzuen kasuan, modu subsidiarioan baino ez bada ere, zerbitzu-emaile gisa.

Bada, jabari publikoaren erabileraren ondorioz lehen ezartzen ziren zerbitzu-tarifak, euren zerga-egitateak berreraiki ondoren, portu-instalazioak modu berezian erabiltzearen ondoriozko benetako tasa bihurtu dira, horietarik desagertu dela zerbitzu-ematearen jarduera.

Bestalde, kalifikazio hori lortu dute, halaber, zerbitzu jakin batzuen inguruko emateek, zerbitzu horiek —gaur egun gutxi

actualmente— que deben calificarse, normalmente por estar ligados al ejercicio de funciones públicas, como obligatorios, en la medida en que no se prestan en concurrencia con el sector privado.

Este grupo de prestaciones, como no podía ser de otra manera, encuentra en la ley la determinación de sus elementos esenciales.

El resto de servicios que se prestan en los puertos de titularidad estatal por las Autoridades Portuarias no se benefician de una situación de monopolio de hecho ni de derecho, sino que, al contrario, coexisten con la iniciativa privada.

Por ello, y en la medida en que tampoco se trata de servicios que vengan exigidos por ninguna normativa, no pueden calificarse como prestaciones patrimoniales impuestas de carácter público.

En consecuencia, siguen manteniendo en la nueva ley su consideración de precios privados, derivados de servicios prestados en régimen de derecho privado, y no sometidos a la reserva de ley.

El presente título se estructura en cinco capítulos, dedicados, respectivamente, a los principios y objetivos; a los recursos del sistema portuario estatal; al Fondo de Compensación Interportuario; a las tasas portuarias; y a los precios privados por servicios prestados por las Autoridades Portuarias.

El primero de los capítulos comienza con la regulación de los principios y objetivos del régimen económico del sistema portuario de titularidad estatal, entre los que destacan los de autonomía de gestión económico-financiera de los organismos públicos portuarios, autofinanciación del sistema portuario, optimización de la gestión económica, solidaridad entre los organismos públicos portuarios, competencia en los puertos de interés general, libertad tarifaria, mejora en la competitividad de los puertos de interés general, y fomento de la participación de la iniciativa privada.

A continuación, en el capítulo II se enumeran los recursos del sistema

batzuk direnak— nahitaezko gisa kalifikatu behar direnean, gehienbat, eginkizun publikoak gauzatzeari loturik egoteagatik sektore pribatuak ezin dituelako halakoak eman.

Zerbitzu-emateen talde horrek, antzeman daitekeenez, legean ditu bere oinarritzko osagaiak.

Estatuko titulartasuneko portuetan Portu Agintaritzek ematen dituzten gainerako zerbitzuek ez dute monopolio-egoeraren onurarik, ez egitatezkorik ez zuzenbidezkorik; aitzitik, ekimen pribatuarekin batera dihardute.

Horregatik, eta ezein arautegik galdatutako zerbitzuak ez direnez, ezin dira kalifikatu izaera publikoko ondare-prestazio ezarri moduan.

Ondorenez, lege berrian prezio pribatuaren izaerari eutsi diote; izan ere, zuzenbide pribatuko araubidean emandako zerbitzuak dira, eta ez daude lege-erreserbaren mende.

Titulu hau bost kapitulutan egituratu da; kapitulu horiek arautu dituzte, hurrenez hurren, printzipioak eta helburuak; estatuaren portu-sistemako baliabideak; Portuen Arteko Konpentsazio Funtsa; portu-tasak; eta prezio pribatuak, Portu Agintaritzek emandako zerbitzuengatik.

Lehenengo kapituluak arautu ditu estatuaren titulartasuneko portu-sistemaren araubide ekonomikoaren printzipio eta helburuak; printzipio horien artean nabarmendu behar dira portuetako erakunde publikoen ekonomia-finantzaren kudeaketari buruzko autonomia, portu-sistemaren autofinantzaketa, kudeaketa ekonomikoaren optimizazioa, portuetako erakunde publikoen arteko elkartasuna, interes orokorreko portuen lehia, tarifa-askatasuna, interes orokorreko portuen lehiakortasuna hobetzea, eta ekimen pribatuaren partaidetza suspertzea.

Jarraian, II. kapituluan, estatuaren portu-sistemaren baliabideak zerrendatu dira,

portuario estatal, debiendo resaltarse los ingresos derivados del nuevo Fondo de Compensación Interportuario, que constituye un elemento básico de solidaridad interportuaria y de garantía de financiación de las infraestructuras.

Es gestionado por Puertos del Estado y se financia con determinadas aportaciones de dicho organismo, así como de cada una de las Autoridades Portuarias.

Destaca como novedad el nuevo sistema de financiación de Puertos del Estado a través de la asignación de un porcentaje de las tasas recaudadas por las Autoridades Portuarias.

El capítulo dedicado a las tasas portuarias es ciertamente relevante.

Contiene una clasificación bipartita de las mismas, de tasas por utilización privativa o aprovechamiento especial del dominio público portuario y tasas por servicios no comerciales.

Dentro de las primeras se regulan las tasas por ocupación privativa del dominio público portuario, por utilización especial de las instalaciones portuarias y por aprovechamiento especial del dominio público en el ejercicio de actividades comerciales, industriales y de servicios.

Por lo que se refiere a las segundas, son tasas por la prestación de servicios no comerciales, la tasa por servicios generales y la tasa por servicio de señalización marítima.

El marco normativo en que se desenvuelven estas prestaciones está constituido por la propia ley y, en lo no regulado, por la Ley de Tasas y Precios Públicos, Ley General Tributaria y su normativa de desarrollo.

En lo relativo a las reglas generales de estos tributos, la ley establece la necesidad de que el importe de las tasas respondan al objetivo de coordinación del sistema de transportes de interés general y al principio de autosuficiencia del sistema portuario, de forma que cubran los gastos ordinarios de

halakoen artean nabarmendu behar direla Portuen Arteko Konpentsazio Funtsa berriak eratorritako sarrerak; arean ere, funts hori portuen arteko elkertasunerako eta azpiegituren finantzaketa bermatzeko oinarrizko osagaia da.

Funts hori «Estatuko Portuak» erakundeak kudeatzen du, eta finantzatzen da erakunde horrek egindako zenbait ekarpenekin, bai eta Portu Agintaritzek egindako ekarpenekin ere.

Berrikuntza moduan, goraiatzekoa da «Estatuko Portuak» erakundearen finantzaketa-sistema berria, Portu Agintaritzek bildutako tasetatik ehuneko jakin bat esleitzuz.

Portu-tasei buruzko kapitulua guztiz garrantzitsua da.

Tasa horien inguruan bitariko sailkapena jaso du, portuko jabari publikoa modu pribatiboan erabiltzearen edo modu berezian aprobetxatzearen ondoriozko tasei dagokienez eta merkataritza-izaerarik gabeko zerbitzuen ondoriozko tasei dagokienez.

Lehenengoen artean arautu dira portuko jabari publikoa modu pribatiboan okupatzearen, portu-instalazioak modu berezian erabiltzearen eta merkataritza-, industria- nahiz zerbitzu-jarduerak gauzatzean jabari publikoa modu berezian aprobetxatzearen ondoriozko tasak.

Bigarrenei dagokienez, merkataritza-izaerarik gabeko zerbitzuen ondoriozko tasak dira zerbitzu orokorren ondoriozkoa eta itsas seinaleetarako zerbitzua ematearen ondoriozkoa.

Zerbitzu-emate horien esparru arauemailea osatzen dute lege honek eta, horrek arautu gabeko aldeetan, Tasa eta Prezio Publikoei buruzko Legeak, Tributu Lege Orokorrak eta horiek garatzen dituen arautegiak.

Tributu horien erregela orokorrei dagokienez, legeak ezarri du beharrezkoa dela tasen zenbatekoa bat etortzea interes orokorreko garraio-sistema koordinatzeko helburuarekin eta portu-sistemaren autosufizientzia printzipioarekin, tasa horiek izan daitezen portu bakoitzaren

cada puerto y les asegure una rentabilidad suficiente para hacer frente a las inversiones futuras y a la devolución de las deudas.

El objetivo de rentabilidad para el conjunto del sistema portuario se fija por ley y podrá ser revisado en función de criterios de política de transporte, de la previsible evolución de la demanda y de las necesidades inversoras del sistema.

También se formula el principio de equivalencia, clásico en estos tributos.

Así, el importe de las tasas por utilización privativa o aprovechamiento especial del dominio público se fija por referencia al valor de mercado o de la utilidad que represente en cada Autoridad Portuaria.

La cuantía de las tasas por servicios no comerciales no puede exceder, en su conjunto, del coste de los servicios o, en su defecto, del valor de la prestación recibida.

La regulación de las tasas por utilización de instalaciones portuarias que fija la ley favorecen la inversión privada en infraestructuras sobre un modelo de gestión portuaria organizado en terminales especializadas concesionadas, ya que la cuantía de aquéllas viene determinada en función del grado de utilidad que le presta al concesionario la infraestructura portuaria.

En relación con las exenciones, la ley regula una lista cerrada y taxativa por cada una de las tasas previstas en la misma.

Dichas exenciones tienen marcado carácter subjetivo a favor de entidades públicas o privadas sin fines lucrativos y de carácter humanitario.

En cuanto a la gestión y revisión de las tasas, existe una remisión general a la Ley General Tributaria y disposiciones de desarrollo en cuanto no se opongan a la propia Ley de Puertos.

La regulación de los sujetos pasivos de cada una de las tasas ha pretendido asegurar el cobro de estas prestaciones,

gastuak estaltzeko lain eta portuei behar besteko errentagarritasuna ziurtatzeko modukoak, bihar-etziko inbertsioei eta zorren itzulketei aurre giteko.

Portu-sistema osoarentzako errentagarritasunaren helburua lege bidez ezartzen da, eta berrikusi ahal izango da, garraio-politikari buruzko irizpideak, eskariak izan dezakeen bilakaera eta sistemaren inbertsio-beharrizanak direla eta.

Halaber, baliokidetasun-printzipioa ezarri da, tributu horietan klasikoa dena.

Horrela, jabari publikoa modu pribatiboan erabiltzearen edo modu berezian aprobetxatzearen ondoriozko tasen zenbatekoa ezartzen da merkatu-balioa edo Portu Agintaritza bakoitzari begira jabari publikoak duen onura erreferentziatzat hartuz.

Merkataritza-izaerarik gabeko zerbitzuen ondoriozko tasen zenbatekoak ezin du gainditu, osotasunean, zerbitzuen kostua edo, halakorik izan ezean, jasotako zerbitzuaren balioa.

Portu-instalazioak erabiltzearen ondorioz legeak tasen inguruan ezarri duen arauketak inbertsio pribatua ahalbidetzen du azpiegituretan, emakida-hartzaileentzako terminal espezializatuen arabera antolatutako kudeaketa-eredua oinarri hartuta; izan ere, tasa horien zenbatekoa ezartzen da portu-azpiegiturek emakida-hartzaileari eskaintzen dion onura-mailaren arabera.

Salbuespenei dagokienez, legeak zerrenda itxia eta zehatza arautu du, jasotako tasa bakoitzari begira.

Salbuespen horiek ageri-agerian dute izaera subjektiboa, irabazteko asmorik gabeko eta giza izaerako erakunde publiko nahiz pribatuen mesedetan.

Tasen kudeaketa eta berrikuspenari dagokienez, oso-osoko igorpena egin da Tributu Lege Orokorrera eta hori garatzeko xedapenetara, halakoak Portuei buruzko Legearen aurka ez doazen heinean.

Tasa bakoitzaren subjektu pasiboen arauketa ahalegindu da zerbitzu-emate horien kobrantza ziurtatzen, tributu-arloan

acudiendo a los mecanismos clásicos de sustitución y solidaridad tributarias, favoreciendo, asimismo, el modelo concesional de gestión portuaria.

Mención especial merecen algunas medidas incluidas en la regulación de la tasa por utilización especial de las instalaciones portuarias, dirigidas a incrementar la competitividad entre nuestros puertos y de éstos con los restantes del mercado internacional.

Así, aunque se parte de una regulación muy rígida, la ley introduce medidas flexibilizadoras, consistentes en la regulación de unos coeficientes correctores y unas bonificaciones.

Los coeficientes correctores permiten disminuir el importe de las tasas a aquellos puertos que presenten una mejor media de rentabilidad, así como incrementarlo a aquellos otros cuya situación sea la opuesta.

De esta forma, se permite potenciar la competitividad de los puertos y se les brinda un instrumento con el que contribuir a su objetivo de autofinanciación.

Por su parte, las bonificaciones responden a seis tipos de objetivos.

En primer lugar, se prevén beneficios para potenciar el papel de España como plataforma logística internacional.

En segundo lugar, también se introducen bonificaciones para potenciar la intermodalidad, es decir, para fomentar la integración de nuestros puertos en las cadenas logísticas nacionales e internacionales.

En tercer lugar, se permite que cada Autoridad Portuaria, sin superar nunca el límite porcentual que fija la propia ley, conceda beneficios para captar y consolidar tráfico de cada puerto.

En cuarto lugar, también se prevén, en la propia ley, bonificaciones fijas por razón de circunstancias de alejamiento e insularidad, en las que ya se han incorporado las previstas en la Ley 30/1998, de 29 de julio, de Régimen Especial de las Illes Balears.

En quinto lugar, también se introducen

klasikoak diren ordezen- eta elkartasun-mekanismoak baliatuta, bai eta portua kudeatzeko emakiden bidezko eredia ahalbidetzen ere.

Aparteko aipamena merezi dute portu-instalazioak modu berezian erabiltzearen ondoriozko tasaren arauketako neurri batzuek, xede dutenek gure portuen arteko eta portu horien eta nazioarteko merkatuaren gainerako portuen arteko lehiakortasuna areagotzea.

Hortaz, nahiz eta abiapuntua arauketa oso hertsia izan, legeak neurri malgutzailak ezarri ditu, koefiziente zuzentzaile eta hobari batzuk arautuz.

Koefiziente zuzentzaileek ahalbidetzen dute batez besteko errentagarritasun hobea duten portuei tasak gutxitzea, bai eta aurkako egoera duten portuei tasak gehitzea ere.

Modu horretara, ahalbidetzen da portuen lehiakortasuna indartzea eta portuen eskuragarri uzten da autofinantzaketaren helburua lortzeko lagungarri izan daitekeen tresna.

Bestalde, hobariak sei helburu-mota dituzte.

Lehendabizi, onurak ezarri dira, Espainiak nazioarteko plataforma logistika gisa duen egitekoa indartzeko.

Bigarrenik, hobariak arautu dira, orobat, intermodalitatea indartzeko, hau da, gure portuak kate logistiko nazional nahiz nazioartekoetan sartzea suspertzeko.

Hirugarrenik, ahalbidetu da Portu Agintaritzak bakoitzak, legeak ezarritako ehunekoen muga gaindu gabe, onurak ematea portu bakoitzeko trafikoak jaso eta sendotzeko.

Laugarrenik, legean bertan hobari finkoak ere ezarri dira, uruntasunaren eta uharte-izaeraren inguruabarrak direla eta; hobari horietara bildu dira uztailaren 29ko 30/1998 Legeak, Balear Uharten Araubide Bereziari buruzkoak, jasotako hobariak.

Bosgarrenez, hobariak sartu dira, baita ere,

bonificaciones para incentivar mejores prácticas medioambientales, al objeto de conseguir que tanto la entrada y salida de los buques como la manipulación de la mercancía se realicen con un mayor respeto al medio ambiente, en consonancia con las directivas comunitarias sobre la materia.

Por último, se incluyen bonificaciones para fomentar que los sujetos pasivos de las tasas del buque, del pasaje y de la mercancía obtengan certificados de calidad homologados en la prestación de sus servicios.

El quinto y último de los capítulos de este título se encuentra dedicado a los precios privados por servicios prestados por las Autoridades Portuarias, cuyo ámbito se extiende a aquellos servicios que, no siendo obligatorios, sino puramente comerciales, se prestan en régimen de concurrencia con el sector privado y, por tanto, sometidos a derecho privado.

Dándose los anteriores requisitos, no rige el principio de reserva de ley, por lo que las tarifas serán aprobadas con total libertad por las Autoridades Portuarias.

No obstante, la ley sí establece algún parámetro para su cuantificación.

El más importante consiste en la imposibilidad de que las tarifas puedan ser inferiores al coste del servicio.

Este límite sólo admite excepciones en aquellos casos, reflejados en los planes de empresa, de subactividad en ausencia de iniciativa privada.

Con ello se incorpora a la ley definitivamente el principio de libertad tarifaria en los puertos españoles.

III

El título II regula los regímenes de planificación, presupuestario, tributario, de funcionamiento y de control de los puertos de interés general apropiados para la adecuada coordinación del sistema portuario estatal sobre la base de la autonomía de gestión de los organismos públicos portuarios.

El título se inicia con el capítulo I dedicado al régimen de planificación.

ingurumen-eginera hobek sustatzeko, lortu dadin ontzien sarrera nahiz irteera eta merkatu-gaien manipulazioa ingurumena gehiago errespetatuz gauzatzea, gai horren inguruan Europako Erkidegoan dauden zuzentarauekin bat etorritz.

Azkenik, hobariak arautu dira, ontziaren, bidaiarien eta merkatu-gaien tasen subjektu pasiboek euren zerbitzuak ematean homologatutako kalitate-ziurtagiriak lortzea suspertzeko.

Titulu honetako bosgarren eta azken kapitulua ari da Portu Agintaritzek emandako zerbitzuak zein izan eta zerbitzu horien ondoriozko prezio pribatuei buruz; titulu horrek bere baitan hartu ditu nahitaezkoak izan ez eta merkataritzakoak diren zerbitzuak, halakoak sektore pribatuarekin batera lehiatuz ematen direla, eta, beraz, zuzenbide pribatuaren mende.

Aipatu betekizunak gauzatzen badira, lege-erreserbaren printzipioa ez da aplikatzen; ondorenez, Portu Agintaritzek askatasun osoz onetsiko dituzte tarifak.

Hala ere, legeak nolabaiteko parametroak ezarri ditu tasa horiek zenbatzeko.

Parametro horietarik garrantzitsuenaren arabera tarifak ezin dira zerbitzuaren kostua baino txikiagoak.

Muga horrek salbuespenak onartzen ditu, ekimen pribaturik izan ez eta azpijarduerakasuetan, hala agertu denean enpresa-planetan.

Horrekin, legean behin betiko jaso da tarifa-askatasunaren printzipioa Espainiako portuei dagokienez.

III

II. tituluak arautu ditu interes orokorreko portuetako plangintza- aurrekontu-, tributatu-, jardunbide- eta kontrol-araubide egokiak, estatuaren portu-sistema behar bezala koordinatzeko, portuetako erakunde publikoen kudeaketa-autonomia oinarri hartuta.

Titulua plangintza-araubideari buruzkoa den I. kapituluarekin hasi da.

Se pretende en el mismo dotar de sistemática a esta materia, regulada en la vigente Ley de Puertos del Estado y de la Marina Mercante con cierta dispersión.

Asimismo, se introducen novedades mediante la creación de nuevos instrumentos de planificación que permitan promover un marco de leal competencia interportuaria y definir los objetivos generales del sistema portuario, ajustando la inversión a las necesidades y favoreciendo la coordinación e integración de los puertos en el sistema de transportes de interés general, al tiempo que se potencia la capacidad de cada Autoridad Portuaria para favorecer la competitividad de los puertos que gestiona.

El marco estratégico del sistema portuario de interés general se elaborará por Puertos del Estado con la participación de las Autoridades Portuarias, que lo remitirá al Ministerio de Fomento para su aprobación.

Este será un instrumento nuevo mediante el cual se defina el modelo de desarrollo estratégico, los criterios de actuación y los objetivos generales del conjunto del sistema portuario estatal, de conformidad con la política económica y de transportes del Gobierno.

Pero los objetivos generales requieren una concreción y un desarrollo a través de los instrumentos de planificación que desarrollarán los organismos públicos portuarios:

plan estratégico, plan director y plan de empresa, este último ya implantado en la regulación actual.

El contenido de los planes se acordará entre cada Autoridad Portuaria y Puertos del Estado mediante la aplicación del sistema paccionado actualmente operativo para los planes de empresa y que tan buenos resultados ha dado en el desarrollo y consecución de los objetivos económicos de cada puerto.

En desarrollo de su plan estratégico, las Autoridades Portuarias elaborarán un

Kapitulu horren helburua da gai hori sistematizatzea, kontuan harturik nahiko barreiatu arautu dela Estatuko Portuei eta Merkataritzako Marinari buruz indarrean dagoen Legean.

Era berean, berrikuntzak egin dira, plangintza-tresna berriak sortuz, ahalbidetzeko portuen arteko lehia leialerako esparrua sustatzea eta portu-sistemaren helburu orokorrak definitzea, inbertsioa beharrezanetara egokituz eta portuak interes orokorreko garraio-sistemarekin koordinatzea eta horretara barneratzea ahalbidetuz; aldi berean, Portu Agintaritza bakoitzaren gaitasuna indartu da, kudeatzen dituen portuen lehiakortasuna ahalbidetzeko.

Interes orokorreko portu-sistemaren esparru estrategikoa «Estatuko Portuak» erakundeak egingo du, Portu Agintaritzen parte-hartzearekin; «Estatuko Portuak» erakundeak esparru estrategiko hori Sustapen Ministerioari igorriko dio onets dezan.

Hori tresna berria izango da, baliagarri izango dena estatuaren portu-sistema osoaren garapen estrategikoaren eredu, jardute-irizpideak eta helburu orokorrak zehazteko, Gobernuaren ekonomia- eta garraio-politikarekin bat etorritik.

Alabaina, helburu orokorrek zehaztasun eta garapena behar dute, portuetako erakunde publikoek gauzatuko dituzten plangintza-tresnen bidez:

plan estrategikoa, plan zuzentzailea eta enpresa-plana; azken hori egungo arauetara bilduta dago.

Planen edukia erabakiko da Portu Agintaritza bakoitzaren eta «Estatuko Portuak» erakundearen artean, gaur egun enpresa-planentzako indarrean dagoen eta portu bakoitzaren helburuak garatu eta erdiesteari dagokionez hain emaitza onak eman dituen itun-sistema aplikatuz.

Portu Agintaritzek euren plan estrategikoak garatze aldera plan zuzentzailea egingo

proyecto de plan director para cada uno de los puertos que gestionen.

El plan director se configura como el instrumento para la previsión de la construcción de un nuevo puerto, la ampliación o la realización de obras de infraestructura de uno existente.

Se mantiene dentro de los instrumentos de la planificación en el sistema portuario estatal, el plan de empresa que tanto ha ayudado a la mejora de la gestión de los puertos de interés general.

A continuación, el capítulo II del mismo título se refiere al régimen presupuestario de los organismos portuarios.

El régimen jurídico aplicable a los organismos portuarios en materia presupuestaria, conforme al artículo 6.6 de la Ley General Presupuestaria, redactado por la Ley 24/2001, de 27 de diciembre, de Medidas Fiscales, Administrativas y del Orden Social para el año 2002, es el previsto en la propia Ley de Puertos y en las disposiciones de la Ley General Presupuestaria que resulten de aplicación.

Se diferencian en este capítulo las obligaciones en materia presupuestaria del organismo público Puertos del Estado y de las Autoridades Portuarias.

En ambos casos, se ha adaptado la regulación establecida en la Ley de Puertos a las modificaciones operadas en el texto refundido de la Ley General Presupuestaria en virtud de la Ley 14/2000, de Medidas Fiscales, Administrativas y del Orden Social para el año 2001.

Puertos del Estado elaborará anualmente los presupuestos de explotación y de capital y el programa de actuación plurianual consolidados del sistema portuario estatal.

Es importante la mención a que dichos presupuestos y programa se habrán de ajustar a las disposiciones de la Ley General de Estabilidad Presupuestaria que sean de aplicación, así como a las directrices de la política presupuestaria del Gobierno.

Por su parte, las Autoridades Portuarias aprobarán cada año los proyectos de

dute kudeatzen duten portu bakoitzari begira.

Plan zuzentzailea aurreikuspen-tresna da, portu berri bat eraikitzeko edo izan baden portu bat hedatzeko nahiz bertan azpiegitura-obrak egiteko.

Estatuaren portu-sistemako plangintza-tresnen artean eutsiko zaio interes orokorreko portuen kudeaketan hainbeste lagundu duen enpresa-planari.

Jarraian, titulu bereko II. kapitulua portu-erakundearen aurrekontu-araubideaz arduratu da.

Aurrekontuen gaian, portu-erakundeei aplikatzen zaien araubide juridikoa da, Aurrekontuen Lege Orokorren 6.6 artikuluekin bat etorriz, abenduaren 27ko 24/2001 Legeak, 2002. urterako Fiskal, Administrazio eta Lan Arloko Neurriei buruzkoak emandako idazkeraren arabera, Portuei buruzko Legean eta Aurrekontuen Lege Orokorretik aplikagarri diren xedapenetan ezarritakoa.

Kapitulu horretan bereizi dira aurrekontuen gaian «Estatuko Portuak» erakunde publikoaren eta Portu Agintaritzen betebeharrak.

Bi kasuetan, Portuei buruzko Legean ezarritako arauketa egokitu zaie, 14/2000 Legeak, 2001. urterako Fiskal, Administrazio eta Lan Arloko Neurriei buruzkoak ezarritakoaren ondorioz, Aurrekontuei buruzko Lege Orokorren testu bategineko aldarazpenei.

La Autoridad Portuaria podrá exigir un depósito previo o la constitución de avales, así como emitir facturas a cuenta, con el objeto de garantizar el cobro del importe de las tarifas por los servicios comerciales que le sean solicitados, sin perjuicio del importe final resultante.

Artículo 35. Reclamación previa a la vía judicial civil.

Contra las liquidaciones de tarifas por servicios comerciales prestados por las Autoridades Portuarias procederá la reclamación previa al ejercicio de acciones civiles que deberá interponerse ante el Consejo de Administración de la Autoridad Portuaria de que se trate.

El plazo para resolver la reclamación será de tres meses desde su interposición.

Transcurrido dicho plazo sin haber notificado resolución expresa, podrá entenderse desestimada.

La interposición de reclamación previa no suspenderá la obligación de efectuar el pago de la factura en el plazo previsto en el artículo anterior.

TÍTULO II

Régimen de planificación, presupuestario, tributario, de funcionamiento y de control

CAPÍTULO I

Régimen de planificación de los puertos de interés general

Artículo 36. Instrumentos de planificación.

De acuerdo con la política económica y de transportes del Gobierno, el Ministerio de

Agindeian, Portu Agintaritzak esanbidez ohartarazi beharko du, fakturako ordainketa bertan ezarritako epean egin ezean, kasuan kasuko zerbitzu-ematea eten egingo duela aldi baterako.

Zerbitzu-ematearen aldi baterako eteteak iraungo du ordainketa egin arte edo etete hori eragin zuen zorra behar adina bermatu arte.

Portu Agintaritzak galdatu ahal izango du aldez aurreko gordailua egitea edo abalak eratztea, bai eta konturako fakturak ematea ere, eskatzen zaizkion merkataritza-zerbitzuak direla eta, tarifen zenbatekoen kobrantza bermatzeko xedearekin, zerbitzu-ematearen ondoriozko azken zenbatekoari kalterik egin gabe.

35. artikulua. Bide judicial zibilaren aurretiazko erreklamazioa.

Portu Agintaritzaren merkataritza-zerbitzuen ondoriozko tarifa-likidazioen aurka bidezkoa izango da akzio zibilak egikaritu aurreko erreklamazioa, egin beharko dena kasuan kasuko Portu Agintaritzaren Administrazio Kontseiluan.

Erreklamazio hori ebazteko epea hiru hilabetekoa izango da, egiten denetik zenbatzen hasita.

Epe hori igarotzen bada esanbidezko ebazpenik jakinarazi gabe, erreklamazioari gaitziritzia eman zaiola ulertu ahal izango da.

Aurretiazko erreklamazioa egiteak ez du etengo fakturako ordainketa egiteko betebeharra, aurreko artikuluan ezarri epean.

II. TITULUA

Plangintza-, aurrekontu-, tributujardunbide- eta kontrol-araubidea

I. KAPITULUA

Interes orokorreko portuen plangintza-araubidea

36. artikulua. Plangintza-tresnak.

Gobernuaren ekonomia- eta garraio-politikarekin bat etorritik, Sustapen

Fomento aprobará el modelo de desarrollo estratégico, los criterios de actuación, así como los objetivos generales de gestión técnicos, económicos, financieros y de recursos humanos del conjunto del sistema portuario estatal.

A tal fin, Puertos del Estado en colaboración con las Autoridades Portuarias elaborará el Marco Estratégico del sistema portuario de interés general, que será ratificado por el Consejo Rector y remitido al Ministro de Fomento para su aprobación.

Puertos del Estado y las Autoridades Portuarias habrán de sujetarse a los objetivos generales incluidos en el Marco Estratégico del sistema portuario de interés general, que será ejecutado a través de los planes de empresa y podrá ser desarrollado por medio de planes estratégicos y planes directores.

Las Autoridades Portuarias elaborarán los proyectos de los planes directores y de empresa, cuyo contenido será acordado con Puertos del Estado.

En el caso de que no se alcance acuerdo, corresponderá al Ministro de Fomento resolver la discrepancia.

Una vez acordados, dichos planes serán ratificados por el Consejo Rector de Puertos del Estado y por el Consejo de Administración de la Autoridad Portuaria.

La modificación de estos planes requerirá el mismo procedimiento establecido en los apartados anteriores.

A través de los instrumentos de planificación previstos en esta ley se deberán favorecer las medidas encaminadas a promover la competencia en la prestación de los servicios portuarios.

Las comunidades autónomas podrán transmitir al ente público Puertos del Estado un resumen de los objetivos de desarrollo regional establecidos por la comunidad autónoma, que puedan tener incidencia en la actividad portuaria, con el objeto de que dicha información pueda ser tomada en consideración a la hora de la definición de los objetivos del conjunto del

Ministerioak onetsiko ditu estatuaren portu-sistema osoaren garapen estrategikorako eredua, jarduteko irizpideak, bai eta kudeaketa teknikorako, ekonomia- eta finantza-kudeaketarako eta giza baliabideen kudeaketarako helburu orokorrak ere.

Horretarako, «Estatuko Portuak» erakundeak, Portu Agintaritzekin elkarlanean arituz, interes orokorreko portu-sistemaren esparru estrategikoa egingo du, Kontseilu Artezkariak berretsiko duena eta Sustapen Ministroari igorriko zaiona, onets dezan.

«Estatuko Portuak» erakundea eta Portu Agintaritzak interes orokorreko portu-sistemaren esparru estrategikora bildutako helburu orokorren mende izango dira; esparru estrategiko hori betearaziko da enpresa-planen bidez, eta garatu ahal izango da plan estrategiko eta plan zuzentzaileen bidez.

Portu Agintaritzek egingo dituzte plan zuzentzaileen eta enpresa-planen proiektuak; horien edukia «Estatuko Portuak» erakundearekin akordatu da.

Akordiorik lortu ezean, Sustapen Ministroak ebatziko du desadostasuna.

Behin akordatuta, plan horiek berretsiko dituzte «Estatuko Portuak» erakundearen Kontseilu Artezkariak eta Portu Agintaritzaren Administrazio Kontseiluak.

Plan horiek aldarazi ahal izateko aurreko idatz-zatietan ezarritako prozedurari jarraituko zaio.

Lege honetan jaso plangintza-tresnen bidez bultzatu beharko dira lehia sustatzeko neurriak portu-zerbitzuak emateko orduan.

Autonomia-erkidegoek «Estatuko Portuak» erakunde publikoari bidali ahal izango diote autonomia-erkidegoak erregio-garapenerako ezarri helburuen laburpena, helburu horiek eragina izan dezaketenean portuko jardueran. Informazio hori bidaltzearen xedea da berau kontuan hartzea estatuaren portu-sistema osoaren eta Portu Agintaritzen helburuak

sistema portuario estatal, y de las Autoridades Portuarias, de acuerdo con los mecanismos previstos en esta ley, a cuyo efecto Puertos del Estado les dará traslado de las propuestas de los diferentes planes de las autoridades portuarias localizadas en su ámbito territorial.

Artículo 37. Plan Estratégico de la Autoridad Portuaria.

Con el fin de establecer el modelo de desarrollo y la posición estratégica de la Autoridad Portuaria, ésta podrá elaborar un plan estratégico que contemple los puertos de su competencia, que incluirá, al menos, un análisis y diagnóstico de la situación actual, la definición de las líneas y objetivos estratégicos, los criterios de actuación y el plan de acción.

El plan estratégico, en su caso, deberá actualizarse siempre que se apruebe un nuevo Marco Estratégico del sistema portuario o se produzcan cambios sustanciales que condicionen o alteren su contenido.

Artículo 38. Plan Director de Infraestructuras del Puerto.

La construcción de un nuevo puerto de titularidad estatal, la ampliación o realización de nuevas obras de infraestructura de uno existente, que alteren significativamente su configuración, requerirá la previa aprobación del Plan Director de Infraestructuras del Puerto.

El proyecto de Plan Director de Infraestructuras será elaborado por la Autoridad Portuaria e incluirá:

la definición de las necesidades de desarrollo de un puerto durante un horizonte temporal de, al menos, 10 años, la determinación de las distintas alternativas de desarrollo, el análisis de cada una de ellas y selección de la más óptima, estudios de impacto ambiental que procedan, previsión de desarrollo por fases, valoración y recursos, análisis financiero y de rentabilidad, y análisis de accesos terrestres.

La aprobación del Plan Director de Infraestructuras que tenga como objeto la construcción de un nuevo puerto

zehaztean, lege honetan ezarri mekanismoekin bat etorriz; ondore horietarako, «Estatuko Portuak» erakundeak bere lurralde-esparruko Portu Agintaritzen plan desberdinek egindako proposamenen berri emango die.

37. artikulua. Portu Agintaritzaren Plan Estrategikoa.

Portu Agintaritzaren garapen-eredua eta estrategia ezartzeko helburuarekin, Portu Agintaritzak bere eskumeneko portuak jasoko dituen plan estrategikoa egin ahal izango du, bertara bilduko direla, gutxienez, eguneratutako egoeraren azterketa eta diagnostikoa, ildo eta helburu estrategikoen zehaztasuna, jardute-irizpideak eta ekintza-plana.

Plan estrategikoa, hala denean, eguneratu beharko da portu-sistemaren Esparru Estrategiko berria onesten den bakoitzean edo horren edukia baldintzatzen edo aldatzen duten funtsezko aldaketak gauzatzen direnean.

38. artikulua. Portuko Azpiegituren Plan Zuzentzailea.

Estatuaren titulartasuneko portu berri bat eraikitzeko, izan baden portu bat hedatzeko edo bertan azpiegitura-obrak egiteko, obra horiek portuaren egitura nabarmen aldatzen dutenean, alde zuzenetik Portuko Azpiegituren Plan Zuzentzailea onetsi beharko da.

Portu Agintaritzak egingo du Azpiegituren Plan Zuzentzailearen proiektua eta horretara bilduko dira:

portu baten garapen-beharrizanen zehaztasuna, gutxienez, 10 urteko denbora-tartean, garapenerako aukera desberdinen zehaztasuna, aukera horietariko bakoitzaren azterketa eta denentzat onenaren hautaketa, ingurumenaren gaineko eraginari buruz bidezkoak diren azterketak, faseen arabera garapenaren aurreikuspena, balorazioa eta baliabideak, finantza- eta errentagarritasun-azterketa, eta lehorreko sarbideen azterketak.

Azpiegituren Plan Zuzentzaileak xede duenean portu berri bat eraikitzea, plan hori onetsiko du Sustapen Ministroak,

corresponderá al Ministro de Fomento, a propuesta de Puertos del Estado.

Previa a su aprobación y una vez realizada la tramitación ambiental que corresponda por las Autoridades Portuarias, se elevará por Puertos del Estado al Ministerio de Medio Ambiente para la evaluación de impacto ambiental, cuando proceda.

Asimismo, y previa su aprobación, se dará audiencia a la autoridad autonómica competente en materia de ordenación del territorio.

La ejecución de las obras previstas en un Plan Director de Infraestructuras requerirá, en su caso, la modificación del Plan de Utilización de los Espacios Portuarios, de acuerdo con lo previsto en el artículo 97 de esta ley.

Artículo 39. Plan de Empresa de la Autoridad Portuaria.

El proyecto de Plan de Empresa será elaborado anualmente por la Autoridad Portuaria, de acuerdo con los objetivos definidos, en su caso, en los instrumentos de planificación plurianual que deberán ajustarse a la política económica del Gobierno.

Dicho plan deberá contener, como mínimo: un diagnóstico de situación, las previsiones de tráfico portuario, las previsiones económico-financieras, los objetivos de gestión, la estructura de personal y oferta de empleo, la evolución de los ratios de gestión, la programación financiera, la programación de inversiones públicas, la estimación de inversiones privadas, el objetivo anual de rentabilidad, el coeficiente corrector a que se refiere el artículo 26 de esta ley, el porcentaje de facturación a efectos de determinación de bonificaciones para potenciar la captación y consolidación de tráfico en cada puerto previsto en el artículo 27.3 y el porcentaje a que hace referencia el artículo 29.5 para la determinación de la cuota de la tasa por servicios generales.

La programación de inversiones públicas incluirá las inversiones materiales, inmateriales y financieras que tengan anualidad en el año a que se refiere el Plan

«Estatuko Portuak» erakundeak hala proposatuta.

Plan hori onetsi aurretik eta Portu Agintaritzek egoki den ingurumen-izapidea gauzatuta, «Estatuko Portuak» erakundeak Ingurumen Ministerioari igorriko dio plan hori, ingurumenaren gaineko eragina ebaluatze aldera, bidezkoa denean.

Era berean, eta plan hori onetsi aurretik, autonomia-erkidegoan lurralde-antolaketaren gaian eskumena duen agintaritza entzungo da.

Azpiegituren Plan Zuzentzaile batean jasotako obren betearazpenak eragingo du, hala denean, Portu Eremuak Erabiltzeko Plana aldaraztea, lege honen 97. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritz.

39. artikulua. Portu Agintaritzaren Enpresa Plana.

Enpresa Planaren proiektua urtero egingo du Portu Agintaritzak, hala denean, urte anitzeko plangintza-tresnetan zehaztutako helburuekin bat etorritz, betiere, plangintza-tresna horiek bat egiten badute Gobernuaren ekonomia-politikarekin.

Plan horrek, gutxienez, jaso beharko du: egoeraren diagnostikoa, portu-trafikoaren aurreikuspenak, ekonomia- eta finantza-aurreikuspenak, kudeaketa-helburuak, langileen egitura eta enplegu-eskaintza, kudeaketa-ratioen bilakaera, finantza-programazioa, inbertsio publikoen programazioa, inbertsio pribatuen zenbatespena, urteko errentagarritasun-helburua, lege honen 26. artikulua aipatu duen koefiziente zuzentzailea, portu bakoitzean trafikoak jaso eta sendotzea indartzeko hobariak zehazte aldera 27.3 artikuluan jaso den fakturazio-ehunekoa eta zerbitzu orokorren ondoriozko tasaren kuota zehazteko 29.5 artikulua aipatu ehunekoa.

Inbertsio publikoen programaziora bilduko dira inbertsio materialak, inmaterialak eta finantza-izaerakoak, halakoek urteko iraupena dutenean, Enpresa Planak ezarri

de Empresa o en el período asociado al plan de actuación plurianual considerado, con el correspondiente reparto de anualidades que requiera el proyecto.

Deberán realizarse los correspondientes estudios de rentabilidad económico-financiera y, en su caso, la evaluación de impacto ambiental, en aquellas actuaciones incluidas en la programación de inversiones públicas que sean relevantes, siguiendo para ello los criterios establecidos en la legislación vigente y en las directrices que establezca Puertos del Estado.

CAPÍTULO II

Régimen presupuestario

Artículo 40. Régimen jurídico.

Puertos del Estado y las Autoridades Portuarias se regirán en materia presupuestaria por lo dispuesto en esta ley y en las disposiciones de la Ley General Presupuestaria que les resulten de aplicación.

Artículo 41. Presupuestos y programas consolidados.

Puertos del Estado elaborará anualmente, de acuerdo con lo dispuesto en los artículos 87 y 88 del texto refundido de la Ley General Presupuestaria, los Presupuestos de Explotación y de Capital y el Programa de Actuación Plurianual consolidados del sistema portuario de titularidad estatal que, una vez aprobados por el Consejo Rector de Puertos del Estado, serán remitidos al Ministerio de Fomento para su tramitación en la forma establecida en el artículo 89 del citado texto refundido e integración en los Presupuestos Generales del Estado.

Los presupuestos y el programa de actuación consolidados del sistema portuario de titularidad estatal integrarán los presupuestos y programas individuales de las Autoridades Portuarias y del ente público Puertos del Estado, y habrán de sujetarse a las disposiciones que, en su caso, sean de aplicación de la Ley 18/2001, de 12 de diciembre, General de Estabilidad Presupuestaria, así como a los criterios y

urtean edo kontuan hartutako urte anitzeko jardute-planera egokitutako epealdian; programazio horrek proiektuak behar dituen urte-kopuru guztiak banatuko ditu.

Ekonomia- eta finantza-errentagarritasuneko kasuan kasuko azterketak egin beharko dira, eta, hala denean, ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazioa, inbertsio publikoen programazioetara bildutako jardueretan, inbertsio horiek garrantzitsuak direnean; ebaluazio hori egiteko kontuan hartuko dira indarreko legerian ezarritako irizpideak eta «Estatuko Portuak» erakundeak ezarritako jarraibideak.

II. KAPITULUA

Aurrekontu-araubidea

40. artikulua. Araubide juridikoa.

Aurrekontuen gaian, «Estatuko Portuak» erakunde eta Portu Agintaritzak arautuko dira lege honetan xedatutakoaren arabera eta Aurrekontuei buruzko Lege Orokorreko xedapenetatik aplikagarri zaizkietan ezarritakoaren arabera.

41. artikulua. Bateratutako aurrekontu eta programak.

«Estatuko Portuak» erakundeak urtero egingo ditu, Aurrekontuei buruzko Lege Orokorren testu bategineko 87 eta 88. artikuluetan xedatutakoarekin bat etorritik, estatuaren titulartasuneko portu-sistemaren ustiatze- eta kapital-aurrekontuak eta urte anitzeko jardute-programa bateratuak; aurrekontu eta programa horiek «Estatuko Portuak» erakunde Kontseilu Artezkeriak onetsi ondoren, Sustapen Ministerioari bidaliko zaizkio, aipatu testu bategineko 89. artikulua ezarri formaren arabera izapidetu eta estatuko Aurrekontu Orokorretara bil daitezten.

Estatuaren titulartasuneko portu-sistemaren aurrekontu eta jardute-programa bateratuek osatuko dituzte Portu Agintaritzen eta «Estatuko Portuak» erakundearen banakako aurrekontu eta programak, eta aurrekontu eta jardute-programa horiek bat etorri beharko dira Aurrekontuen Egonkortasunerako abenduaren 12ko 18/2001 Lege Orokorren xedapenekin, halakoak

directrices de la política presupuestaria del Gobierno.

Para esta consolidación se respetarán íntegramente los planes de empresa aprobados para cada Autoridad Portuaria.

Las variaciones de los presupuestos de explotación y capital consolidados se ajustarán a lo previsto en el artículo 90.2 del texto refundido de la Ley General Presupuestaria, y se tramitarán a propuesta de Puertos del Estado.

Cuando no concurren las previsiones a que se refiere dicho artículo, las modificaciones del presupuesto de explotación o del presupuesto de adquisiciones de inmovilizado que incrementen las cuantías totales de dichos presupuestos consolidados serán aprobadas por el Ministro de Fomento, a propuesta de Puertos del Estado.

En los demás casos, la variación de las dotaciones presupuestarias será autorizada por Puertos del Estado.

Artículo 42. Presupuestos y programas individuales.

Las Autoridades Portuarias aprobarán cada año los proyectos de presupuestos de explotación y capital y de programa de actuación plurianual individuales, que se ajustarán a las previsiones económico-financieras y a la programación financiera y de inversiones acordadas con Puertos del Estado en el marco de los respectivos planes de empresa.

En la elaboración de dichos proyectos las Autoridades Portuarias habrán de sujetarse a los objetivos generales que establezca Puertos del Estado.

Dichos proyectos serán remitidos a Puertos del Estado para su aprobación con carácter previo e integración, junto con los individuales de Puertos del Estado, en los presupuestos y programas consolidados.

Por el Ministerio de Hacienda se establecerá la información complementaria que junto a dichos proyectos deberá ser tramitada a la Dirección General de

aplikagarri zaizkienean, bai eta Gobernuaren aurrekontu-politikaren irizpide eta jarraibideekin ere.

Bateratze horretarako erabat errespetatuko dira Portu Agintaritza bakoitzak onetsitako enpresa-planak.

Bateratutako ustiatze- eta kapital-aurrekontuetako aldaketak bat etorriko dira Aurrekontuei buruzko Lege Orokorraren testu bategineko 90.2 artikuluan ezarritakoarekin, eta izapidetuko dira «Estatuko Portuak» erakundeak hala proposatuta.

Artikulu horrek aipatu xedapenak betetzen ez direnean, ustiatze-aurrekontuaren edo ibilgetua eskuratzeko aurrekontuaren aldarazpenak Sustapen Ministroak onetsiko ditu, «Estatuko Portuak» erakundeak hala proposatuta, aldarazpenok bateratutako aurrekontu horien zenbateko osoak gehitzen dituztenean.

Gainerako kasuetan, aurrekontu-zuzkiduren aldaketa «Estatuko Portuak» erakundeak baimenduko du.

42. artikulua. Banakako aurrekontu eta programak.

Portu Agintaritzek urtero onetsiko dituzte ustiatze- eta kapital-aurrekontuen eta urte anitzeko jardute-programen banakako proiektuak, bat etorriko direnak kasuan kasuko enpresa-planen esparruan «Estatuko Portuak» erakundearekin akordatutako ekonomia- eta finantza-aurreikuspenekin eta finantza- eta inbertsio-programazioarekin.

Proiektu horiek egitean, Portu Agintaritzek bete beharko dituzte «Estatuko Portuak» erakundeak ezarri helburu orokorrak.

Proiektu horiek «Estatuko Portuak» erakundeari igorriko zaizkio aurretiaz onetsi eta bateratutako aurrekontu eta programetara bil ditzan, «Estatuko Portuak» erakundearen banakako proiektuekin batera.

Ekonomia Ministerioaren bidez informazio osagarria ezarriko da, proiektu horiekin batera Aurrekontuen Zuzendaritza Nagusira bidali beharko dena.

Presupuestos.

Cuando a nivel consolidado no concurren las previsiones a que se refiere el artículo 90.2 del texto refundido de la Ley General Presupuestaria, serán aprobadas por los Consejos de Administración de las Autoridades Portuarias o por el Consejo Rector de Puertos del Estado, según corresponda, las modificaciones internas de los presupuestos individuales de explotación o capital que no incrementen sus respectivas cuantías totales.

De estas modificaciones se informará a Puertos del Estado.

No obstante, cuando las modificaciones internas representen incremento de los gastos de personal o afecten a la programación de inversiones, deberán ser aprobadas por Puertos del Estado.

Las modificaciones de los presupuestos individuales de los organismos públicos portuarios por reasignaciones de dotaciones presupuestarias entre los mismos que no incrementen la cuantía total de los presupuestos consolidados, serán aprobadas por Puertos del Estado.

CAPÍTULO III

Régimen contable

Artículo 43. Régimen contable.

Los organismos públicos portuarios ajustarán su contabilidad a las disposiciones del Código de Comercio, a las del Plan General de Contabilidad y a las demás que sean de aplicación.

La adaptación sectorial se ajustará a lo dispuesto reglamentariamente.

Para garantizar la necesaria homogeneidad contable, en el marco de la normativa prevista en el párrafo anterior, Puertos del Estado establecerá directrices relativas a los criterios valorativos, así como a la estructura y normas de elaboración de las cuentas anuales, que deberán ser aplicados por las Autoridades Portuarias.

El ejercicio social se computará por períodos anuales, comenzando el día 1 del mes de enero de cada año.

Bateratzea gauzatu ondoren, Aurrekontuei buruzko Lege Orokorren testu bateginaren 90.2 artikuluko aurreikuspenak betetzen ez direnean, Portu Agintaritzetako Administrazio Kontseiluek edo «Estatuko Portuak» erakundearen Kontseilu Artekariak onetsiko ditu, kasuaren arabera, ustiatze- eta kapital-aurrekontuen banakako aurrekontuen barne aldarazpenak, aurrekontu horiek ez dutenean gehitzen euren zenbateko osoak. Aldarazpen horien berri emango zaio «Estatuko Portuak» erakundeari.

Hala ere, «Estatuko Portuak» erakundeak onetsiko ditu barne aldarazpenak, halakoek oinarri dutenean langileen gastuek izandako igoera edo halakoek inbertsioen programazioa ukitzen dutenean.

Portuetako erakunde publikoen banakako aurrekontuak aldarazten direnean, horiei aurrekontu-zuzkidura berriak esleitzeko, aldarazpen horiek «Estatuko Portuak» erakundeak onetsiko ditu, baldin eta zuzkidura horiek igotzen ez badute bateratutako aurrekontuen zenbateko osoa.

III. KAPITULUA

Kontabilitate-araubidea

43. artikulua. Kontabilitate-araubidea.

Portuetako erakunde publikoek euren kontabilitatea egokituko dute Merkataritzako Kodeko, Kontabilitateko Plan Orokorreko eta aplikagarri diren gainerako xedapenetara.

Sektorekako egokitzapena bat etorriko da erregelamendu bidez xedatutakoarekin.

Beharrezko kontabilitate-homogeneotasuna bermatzeko, aurreko paragrafoak jasotako arautegiaren esparruan, «Estatuko Portuak» erakundeak jarraibideak ezarriko ditu, balorazio-irizpideei buruzkoak, bai eta urteko kontuen egiturari eta kontu horiek egiteko araei buruzkoak ere; jarraibide horiek Portu Agintaritzek aplikatu beharko dituzte.

Ekitaldia zenbatuko da urtealdien arabera, urte bakoitzeko urtarrilaren 1ean hasita.

Las cuentas anuales, que comprenderán el balance, la cuenta de pérdidas y ganancias y la memoria, deberán formularse en el plazo máximo de tres meses desde el cierre del ejercicio económico y serán aprobadas, según el caso, por los respectivos Consejos de Administración de las Autoridades Portuarias o por el Consejo Rector de Puertos del Estado.

La aprobación deberá producirse antes de finalizar el primer semestre del siguiente año.

Los resultados de cada ejercicio, positivos o negativos, se aplicarán a las correspondientes cuentas de beneficios o pérdidas acumulados integrantes de los fondos propios de la entidad, y se destinarán al cumplimiento de las funciones previstas en esta ley para dichos organismos.

Puertos del Estado elaborará anualmente un balance, cuenta de pérdidas y ganancias y cuadro de financiación consolidados del sistema portuario de titularidad estatal, que se incluirán en el informe relativo a la ejecución de la política portuaria que se eleve anualmente a las Cortes Generales.

Dicho informe incorporará como anexo los mismos datos de cada Autoridad Portuaria.

CAPÍTULO IV

Régimen de fiscalización y control

Artículo 44. Régimen de fiscalización y control.

El régimen de control de las actividades económicas y financieras de los organismos públicos portuarios se ejercerá, de conformidad con lo establecido en los artículos 17.3 y 20 del texto refundido de la Ley General Presupuestaria, por la Intervención General de la Administración del Estado y el Tribunal de Cuentas, respectivamente.

Las Autoridades Portuarias y Puertos del Estado estarán sometidas a la obligación de rendir cuentas de sus operaciones ante el Tribunal de Cuentas, por conducto de la Intervención General de la Administración del Estado.

Urteko kontuak, euren baitara bilduko dituztenak balantzea, galera-irabazien kontua eta oroitidazkia, aurkeztu beharko dira ekitaldi ekonomikoa itxi eta, gehienez ere, hiru hilabeteko epean, eta kontuok onetsiko dituzte, kasuaren arabera, Portu Agintaritzetako Administrazio Kontseiluek edo «Estatuko Portuak» erakundearen Kontseilu Artezkariak.

Kontuok onetsi beharko dira hurrengo urteko lehenengo seihilekoa amaitu aurretik.

Ekitaldi bakoitzeko emaitzak, positiboak nahiz negatiboak, aplikatuko zaizkie pilotutako kasuan kasuko galera-irabazien kontuei, halakoek erakundearen funtsa propioak osatzen dituzten heinean, eta destinatuko dira erakunde horiei begira lege honek ezarri eginkizunak betetzera.

«Estatuko Portuak» erakundeak urtero egingo ditu modu bateratuan estatuaren titulartasuneko balantzea, galera-irabazien kontua eta finantzaketa-koadroa, horiek guztioriek bilduko direla urtero portu-politikaren inguruan Gorte Nagusiei bidaliko zaien txostenera.

Txosten horretara eranskin gisa bilduko dira Portu Agintaritzaren bakoitzaren datu berberak.

IV. KAPITULUA

Fiskalizazio- eta kontrol-araubidea

44. artikulua. Fiskalizazio- eta kontrol-araubidea.

Portuetako erakunde publikoen ekonomia- eta finantza-jardueren kontrol-araubidea gauzatuko dute, hurrenez hurren, Aurrekontuei buruzko Lege Orokorraren testu bategineko 17.3 eta 20. artikuluetan ezarritakoarekin bat etorrituz, Estatuko Administrazio Kontu Hartzailtza Nagusiak eta Kontu Auzitegiak.

Portu Agintaritzek eta «Estatuko Portuak» erakundeak euren eragiketen inguruko kontu-arrazoia eman beharko dizkiote Kontu Auzitegiari, Estatuko Administrazio Kontu Hartzailtza Nagusiaren bidez.

Dichas cuentas se formarán y rendirán de acuerdo con los principios y normas de contabilidad recogidos en el Plan General de Contabilidad vigente para la empresa española y disposiciones que lo desarrollen.

Serán cuentadantes los Presidentes de las Autoridades Portuarias y de Puertos del Estado, siendo responsables de la información contable y de la rendición de las cuentas, debidamente autorizadas, en los plazos fijados al efecto.

Sin perjuicio de lo dispuesto en el texto refundido de la Ley General Presupuestaria y conforme a lo establecido en el artículo 26.1.f) de la Ley de Puertos del Estado y de la Marina Mercante, el control de objetivos a que se refiere el artículo 17.2 del texto refundido de la Ley General Presupuestaria, será competencia de Puertos del Estado respecto de las Autoridades Portuarias, y de la Intervención General de la Administración del Estado y del Ministerio de Fomento respecto de Puertos del Estado.

Puertos del Estado ejercerá sobre el sistema portuario, a través de los correspondientes planes de control, la función de control interno con el objeto de analizar la seguridad de los activos, la fiabilidad de la información financiera y el cumplimiento de las leyes y normas aplicables.

Los informes de control serán elevados por los Presidentes de las Autoridades Portuarias a los respectivos Consejos de Administración, y por el de Puertos del Estado al Consejo Rector, junto con la propuesta de medidas que, en su caso, proceda adoptar.

El Presidente de Puertos del Estado elevará al Ministerio de Fomento todos los informes de control realizados sobre los organismos públicos portuarios.

CAPÍTULO V

Régimen tributario

Kontu horiek prestatuko dira eta beraien berri emango da Espainiako enpresarentzako indarrean dagoen Kontabilitate Plan Orokorreko eta horren garatze-xedapenetako kontabilitate-arau eta -printzipioekin bat etorritz.

Kontu-arrazoien emaile izango dira Portu Agintaritzetako eta «Estatuko Portuak» erakundeko Lehendakariak, eta horiek izango dute erantzukizuna, behar bezala baimendutako kontabilitate-informazioaren eta kontu-arrazoia ematearen gainean, ondore horietarako ezarri epeetan.

Aurrekontuei buruzko Lege Orokorren testu bateginean xedatutakoari kalterik egin gabe eta Estatuko Portuei eta Merkataritzako Marinari buruzko Legearen 26.1.f) artikuluan ezarritakoarekin bat etorritz, Aurrekontuei buruzko Lege Orokorren testu bategineko 17.2 artikulua ezarri helburuen gaineko kontrola «Estatuko Portuak» erakundearen eskumenekoa izango da, Portu Agintaritzei dagokienez, eta Estatuko Administrazio Kontu Hartzailtza Nagusiaren eta Sustapen Ministerioaren eskumenekoa, «Estatuko Portuak» erakundeari dagokienez.

«Estatuko Portuak» erakundeak portu-sistemaren gainean gauzatuko du barne kontrolaren eginkizuna, kasuan kasuko kontrol-planen bidez, xede izanik aktiboen segurtasuna, finantza-informazioaren fidagarritasuna eta aplikagarri diren legeen eta arauen betetze-maila aztertzea.

Kontrol-txosten horiek bidaliko zaizkie, Portu Agintaritzetako Lehendakarien bidez kasuan kasuko Administrazio Kontseiluei, eta «Estatuko Portuak» erakundeko Lehendakariaren bidez Kontseilu Artezkariari, hala denean, bidezko moduan hartu behar diren neurrien proposamenarekin batera.

«Estatuko Portuak» erakundearen Lehendakariak Sustapen Ministeriora bidaliko ditu portuetako erakunde publikoen gainean egindako kontrol-txosten guztiak.

V. KAPITULUA

Tributu-araubidea

Artículo 45. Régimen tributario.

Las Autoridades Portuarias y Puertos del Estado quedan sometidas al mismo régimen tributario que corresponde al Estado, sin perjuicio de la aplicación a dichas Entidades del régimen de entidades parcialmente exentas en el Impuesto sobre Sociedades, a cuyo efecto los ingresos por la prestación de servicios comerciales tendrán la consideración de ingresos procedentes de explotaciones económicas.

El régimen tributario del dominio público portuario será el mismo que el establecido para el dominio público marítimo-terrestre.

CAPÍTULO VI

Régimen patrimonial

Artículo 46. Patrimonio propio de los organismos portuarios.

Para el cumplimiento de los fines que les son propios, las Autoridades Portuarias y Puertos del Estado tendrán un patrimonio propio, formado por el conjunto de los bienes y derechos que el Estado les atribuya como propios, los que adquieran en el futuro por cualquier título o les sean cedidos o donados por cualquier persona o entidad.

Artículo 47. Adscripción y afectación de bienes a los organismos públicos portuarios.

Los bienes patrimoniales del Estado que se adscriban a los organismos públicos portuarios y estén afectados a su servicio conservarán su calificación jurídica originaria, debiendo utilizarlos exclusivamente para el cumplimiento de los fines determinantes de su afectación o adscripción.

Los organismos públicos portuarios podrán ejercer en cualquier momento respecto de estos bienes las facultades de administración, defensa, policía, investigación, deslinde y recuperación posesoria que otorga a la Administración del Estado la Ley de Costas.

El cambio de afectación de bienes de dominio público estatal a favor de los organismos públicos portuarios, así como la adscripción de nuevos bienes

45. artikulua. Tributu-araubidea.

Portu Agintaritzek eta «Estatuko Portuak» erakundeak estatuaren tributu-araubide bera izango dute; hori gorabehera, erakunde horiei aplikatuko zaie Sozietateen gaineko Zergan modu partzialean salbuetsita dauden erakundeen araubidea, ondore horretarako merkataritza-zerbitzuak ematearen ondoriozko sarrerak hartuko direla ustiapen ekonomikoen ondoriozko sarreratzat.

Portuko jabari publikoaren tributu-araubidea izango da itsas-lehorreko jabari publikoaren araubide juridiko bera.

VI. KAPITULUA

Ondare-araubidea

46. artikulua. Portu-erakundeen ondare propioa.

Portu Agintaritzek eta «Estatuko Portuak» erakundeak, berezkoak dituzten helburuak betetzeko, ondare propioa izango dute; ondare hori osatuko dute estatuak berezko gisa eratzikitzen dizkien ondasunen eta eskubideen multzoak, etorkizunean edozein tituluren bidez eskura ditzaketen ondasun eta eskubideek edo edozein pertsonak edo erakundek lagatakoek edo dohaintzan emandakoek.

47. artikulua. Portuetako erakunde publikoei ondasunak atxikitzea eta lotzea.

Portuetako erakunde publikoei atxikitzen zaizkien estatuaren ondare-ondasunek euren jatorrizko kalifikazioari eutsiko diote, ondasun horiek Portu Agintaritzen zerbitzuari lotzen zaienean; ondasunok erabiliko dira lotura edo atxikipena eragiten duten helburuak betetzeko bakarrik.

Portuetako erakunde publikoek ondasun horiei begira edozein unetan egikaritu ahal izango dituzte Kostaldean Legeak Estatuko Administrazioari eratzikitako administrazio-, defentsa-, polizia-, ikerketa-, mugaketa-ahalmenak eta edukitza berreskuratze ahalmena.

Estatuaren jabari publikoko ondasunen lotura-aldaketa, portuetako erakunde publikoen mesedetan, bai eta ondare-ondasun berrien atxikitzea ere, modu

patrimoniales, se efectuará singularmente por el Ministerio de Hacienda, a propuesta del Ministerio de Fomento, salvo cuando estos nuevos bienes procedan de la ejecución por dichas entidades de nuevas obras e instalaciones o sean adquiridos en el desarrollo de sus actividades, o mediante la aprobación del Plan de Utilización de los Espacios Portuarios de conformidad con lo previsto en el artículo 96 de esta ley.

Artículo 48. Desafectación de bienes de dominio público adscritos a las Autoridades Portuarias.

Los bienes de dominio público portuario que resulten innecesarios para el cumplimiento de fines de este carácter podrán ser desafectados por el Ministro de Fomento, a propuesta de Puertos del Estado, previa declaración de innecariedad por el Consejo de Administración de la Autoridad Portuaria e informe de la Dirección General de Costas sobre las características físicas de dichos bienes, a efectos de la protección y defensa del dominio público marítimo-terrestre.

Los bienes desafectados se incorporarán al patrimonio de la Autoridad Portuaria, quien podrá proceder a su enajenación, permuta o, en su caso, cesión gratuita previa comunicación a la Dirección General de Patrimonio.

Cuando el valor venal del bien, determinado mediante tasación independiente, sea superior a 3.000.000 de euros y no exceda de 18.000.000 de euros, su enajenación y las condiciones de la misma deberán ser autorizadas, además, por Puertos del Estado, y por el Gobierno cuando sobrepase esta última cantidad.

Sólo se admitirá la cesión gratuita de los bienes desafectados a favor de las Administraciones públicas y para fines de utilidad pública o interés social.

Si los bienes cedidos no fueran destinados al uso previsto, o dejaren de serlo posteriormente, se considerará resuelta la cesión y revertirán aquéllos a la Autoridad Portuaria, teniendo derecho a percibir el

berezian gauzatuko du Ogasun Ministerioak, Sustapen Ministerioak hala proposatuta, salbu eta ondasun berri horien jatorria denean erakundeok egiten dituzten obra edo instalazio berriak edo euren jarduerak gauzatzearen ondoriozko eskuraketak, edo Portu Eremuak Erabiltzeko Planaren onespina, lege honen 96. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritz.

48. artikulua. Portu Agintaritzei lotutako jabari publikoko ondasunak jaregitea.

Jabari publikoko ondasunak ez direnean beharrezkoak izaera hori duten helburuak betetzeko, Sustapen Ministroak jaregin ahal izango ditu, «Estatuko Portuak» erakundeak hala proposatuta, alde aurretik Portu Agintaritzaren Administrazio Kontseiluak ondasunon beharrezkotasunik eza adierazita eta Kostaldeen Zuzendaritza Nagusiak txostena eginda, itsas-lehorreko jabari publikoa babestu eta defendatzeko.

Jaregindako ondasunak Portu Agintaritzaren ondarera bilduko dira; Portu Agintaritzak ondasunok besterendu, trukatu edo, hala denean, doan laga ahal izango ditu, alde aurretik hori Ondarearen Zuzendaritza Nagusiari komunikatuta.

Ondasunaren salmenta-balioa, tasazio independente bidez zehaztutakoa, 3.000.000 eurotik gorakoa eta 18.000.000 eurotik beherakoa denean, ondasun horren besterentzea eta besterentze horren baldintzak baimendu beharko ditu «Estatuko Portuak» erakundeak, eta hori berori egingo du Gobernuak, azken zenbateko hori gainditzen denean.

Jaregindako ondasunak doan lagatzea ahalbidetuko da lagatze hori egiten denean Administrazio publikoen mesedetan eta onura publikoko edo gizarte-intereseko helburuetarako bakarrik.

Lagatako ondasunak ez badira destinatzen aurreikusitako erabilerara, edo ondasun horiek gerogarrenean erabilerara hori galtzen badute, ulertuko da lagatzea suntsiarazi dela, eta ondasun horiek Portu

valor de los detrimentos o deterioros experimentados.

La cesión deberá ser autorizada por Puertos del Estado, previo informe de la Dirección General de Patrimonio que tendrá carácter vinculante y se entenderá en sentido favorable si transcurre el plazo de un mes sin que sea emitido de forma expresa.

Se exceptúa el caso de que el valor del bien exceda de 18.000.000 de euros, en cuyo caso deberá ser autorizada por el Gobierno.

En el caso de que los bienes declarados innecesarios conserven las características naturales de bienes de dominio público marítimo-terrestre, de los definidos en el artículo 3 de la Ley 22/1988, de 28 de julio, de Costas, se declarará por el Ministro de Fomento su incorporación automática al uso propio del dominio público marítimo-terrestre regulado por dicha ley.

Sin embargo, cuando deban adoptarse medidas medioambientales correctoras sobre los referidos bienes, las mismas se acordarán entre el Ministerio de Medio Ambiente y el Ministerio de Fomento, y se incorporarán a la orden del Ministro de Fomento.

En el caso de que dichas medidas resulten necesarias como consecuencia de los efectos que haya producido la gestión portuaria sobre el dominio público desafectado, la incorporación de dichos bienes no se entenderá efectuada hasta que la Autoridad Portuaria haya ejecutado las mismas.

En otro caso la orden precisará la participación de cada departamento ministerial en la ejecución de estas medidas.

La orden del Ministro de Fomento que acuerde la desafectación conllevará la rectificación de la delimitación de la zona de servicio del puerto contenida en el Plan

Agintaritzara lehengoratuko dira; halakoetan, Portu Agintaritzak eskubidea izango du jasandako kalte edo narriaduren balioa zein izan eta horren arabera zenbatekoa jasotzeko.

«Estatuko Portuak» erakundeak baimendu beharko du lagatzea, alde aurretik Ondarearen Zuzendaritza Nagusiak txostena eginda; txosten horrek izaera loteslea izango du, eta aldekoa dela ulertuko da, baldin eta hilabeteko epea igaro ondoren txosten hori esanbidez ematen ez bada.

Salbuetsita geratzen da 18.000.000 eurotik gorako balioa duen ondasunaren kasua, halakoetan baimena Gobernuak eman beharko duela.

Beharrezkotzat jo gabeko ondasunek euren ezaugarri naturalei eusten badizkiete, itsas-lehorreko jabari publikoko ondasun gisa, uztailaren 28ko 22/1988 Legeak, Kostaldee buruzkoak, 3. artikuluan zehaztutakoaren arabera, Sustapen Ministroak adieraziko du ondasunok berehala biltzea itsas-lehorreko jabari publikoaren inguruan lege horrek araututako erabilera propiora.

Aitzitik, aipatu ondasunei begira ingurumen-neurri zuzentzaileak hartu behar direnean, neurri horiek erabakiko dituzte Ingurumen Ministerioaren eta Sustapen Ministerioaren artean, eta Sustapen Ministroaren agindura bilduko dira.

Neurri horiek beharrezkoak direnean, jaregindako jabari publikoan portu-kudeaketak izan dituen ondoreak direla eta, ondasun horiek ez dira bilduko Portu Agintaritzak neurri horiek betearazi arte.

Bestelakoan, aginduak beharko du ministerio-sail bakoitzaren partaidetza neurri horiek betearazteari dagokionez.

Sustapen Ministroaren aginduak jaregitearen alde egiten duenean, berarekin ekarriko du Portu Eremuak Erabiltzeko Planean portuko zerbitzu-

de Utilización de los Espacios Portuarios, y se comunicará al Ministerio de Medio Ambiente a los efectos previstos en el párrafo anterior.

Los Consejos de Administración de las Autoridades Portuarias y el Consejo Rector de Puertos del Estado, sin necesidad de expresa declaración de desafectación del servicio, podrán acordar el desguace y, en su caso, la enajenación de materiales inservibles y de instalaciones no fijas, así como la enajenación de bienes muebles de cualquier naturaleza.

El producto obtenido de las enajenaciones se destinará a la financiación de las adquisiciones de inmovilizado previstas en el plan de inversiones.

Artículo 49. Desafectación de bienes de dominio público adscritos a Puertos del Estado.

Los bienes de dominio público de Puertos del Estado que no sean precisos para el cumplimiento de sus fines serán desafectados por el Ministro de Fomento, previa declaración de innecesariedad por el Consejo Rector de Puertos del Estado, y se incorporarán al patrimonio del mismo, quien podrá proceder a su enajenación, permuta o, en su caso, cesión gratuita.

Cuando el valor venal del bien, determinado mediante tasación independiente, sea superior a 18.000.000 de euros su enajenación y las condiciones de la misma deberán ser autorizadas, además, por el Gobierno a propuesta del Ministro de Fomento.

La cesión gratuita se registrará por los mismos presupuestos previstos en el artículo anterior y deberá ser autorizada por el Ministro de Fomento, previo informe de la Dirección General de Patrimonio que tendrá carácter vinculante y se entenderá en sentido favorable si transcurre el plazo de un mes sin que se haya emitido de forma expresa.

Se exceptúa el caso de que el valor del bien exceda de 18.000.000 de euros, en cuyo caso deberá ser autorizada por el

gunearen inguruan jasotako zehaztapena zuzentzea; agindu hori Ingurumen Ministerioari komunikatuko zaio, aurreko lerrokan ezarri ondoretarako.

Portu Agintaritzetako Administrazio Kontseiluek eta «Estatuko Portuak» erakundeko Kontseilu Artezkariak, zerbitzutik jaregiteko esanbidezko adierazpenik egin gabe, erabaki ahal izango dute zatikatzea eta, hala denean, besterentzea, baliagarria ez den materiala eta finko ez diren instalazioak, bai eta edozein izaerako ondasun higigarriak ere.

Besterentzeetatik lortutako emaitza destinatuko da ibilgetua eskuratzeko finantzaketara, eskuratzek inbertsio-planean ezarri direnean.

49. artikulua. «Estatuko Portuak» erakundeari atxikitako jabari publikoko ondasunak jaregitea.

«Estatuko Portuak» erakundearen jabari publikoko ondasunak ez direnean beharrezkoak bere helburuak betetzeko, Sustapen Ministroak ondasunok jaregingo ditu, aldez aurretik «Estatuko Portuak» erakundearen Kontseilu Artezkariak ondasunon beharrezkotasunik eza adierazita; ondasunok «Estatuko portuak» erakundearen ondarera bilduko dira, eta erakunde horrek besterendu, trukatu edo doan laga ahal izango ditu.

Ondasunaren salmenta-balioa, tasazio independente bidez zehaztutakoa, 18.000.000 eurotik gorakoa denean, ondasun horren besterentzea eta besterentze horren baldintzak Gobernuak baimendu beharko ditu, Sustapen Ministroak hala proposatuta.

Doako lagatzea arautuko dute aurreko artikulua jasotako xedapen berberak, eta Sustapen Ministroak baimendu beharko du hori, aldez aurretik Ondarearen Zuzendaritza Nagusiak txostena eginda; txosten horrek izaera loteslea izango du, eta aldekoa dela ulertuko da, baldin eta hilabeteko epea igaro ondoren esanbidez ematen ez bada.

Salbuetsita geratzen da 18.000.000 eurotik gorako balioa duen ondasunaren kasua, halakoetan baimena Gobernuak eman

Gobierno.

Artículo 50. Participación en sociedades y otras entidades.

Puertos del Estado y las Autoridades Portuarias podrán participar únicamente en sociedades cuyo objeto esté ligado al desarrollo de actividades portuarias, así como logísticas, de transporte y tecnológicas que promuevan la competitividad del puerto y los tráficos portuarios.

En ningún caso podrán participar en sociedades que presten servicios portuarios básicos o en sociedades que tengan influencia efectiva en aquéllas, con la excepción prevista en el artículo 60.4 de esta ley.

La adquisición o enajenación de acciones de sociedades en las que participe Puertos del Estado deberá ser autorizada por su Consejo Rector cuando estas operaciones no impliquen la adquisición o pérdida de la posición mayoritaria.

La adquisición o enajenación de acciones de sociedades en las que participe la Autoridad Portuaria deberá ser autorizada por su Consejo de Administración, previo informe favorable de Puertos del Estado cuando el conjunto de compromisos contraídos en dicha sociedad no supere el 1 por ciento del activo fijo neto de la Autoridad Portuaria y siempre que estas operaciones no impliquen la adquisición o pérdida de la posición mayoritaria.

Cuando el conjunto de los compromisos contraídos en dicha sociedad pueda superar el 1 por ciento del activo fijo neto de la Autoridad Portuaria, la adquisición requerirá previa autorización de Puertos del Estado.

Cuando la adquisición o enajenación de acciones de sociedades implique la adquisición o pérdida de la posición mayoritaria de alguno de los organismos o del sistema portuario estatal, la autorización corresponderá al Consejo de

beharko duela.

50. artikulua. Sozietateetan eta beste erakunde batzuetan parte hartzea.

«Estatuko Portuak» erakundeak eta Portu Agintaritzek sozietateetan parte hartu ahal izango dute, sozietate horien xedea lotzen zaionean portu-jarduerak gauzatzeari, bai eta portuko eta portu-trafikoen lehiakortasuna sustatzen duten logistika-, garraio- eta teknologia-jarduerak gauzatzeari ere.

Inola ere ezin izango dute parte hartu oinarrizko portu-zerbitzuak ematen dituzten sozietateetan edo horietan benetako eragina duten sozietateetan, lege honen 60.4 artikuluan ezarritako salbuespenarekin.

«Estatuko Portuak» erakundeak zein sozietateetan parte hartu eta sozietate horietako akzioak eskuratu edo besterentzeko, «Estatuko Portuak» erakundearen Kontseilu Artezkeriak eman beharko du baimena, eragiketa horiek ez dakartenean gehieneko partaidetza irabaztea edo galtzea.

Portu Agintaritzak zein sozietateetan parte hartu eta sozietate horietako akzioak eskuratu edo besterentzeko, Portu Agintaritzaren Administrazio Kontseiluak eman beharko du baimena, aldeaz aurretik «Estatuko Portuak» erakundearen aldeko txostena beharko dela, sozietate horretan hartutako konpromiso guztiek, osotasunean, ez dutenean gairatzen Portu Agintaritzaren aktibo finko garbiaren ehuneko 1, eta, betiere, eragiketa horiek ez badakarte gehieneko partaidetza irabaztea edo galtzea.

Sozietate horretan hartutako konpromisoen multzoak gairatzen ez direnean Portu Agintaritzaren aktibo finko garbiaren ehuneko 1, eskuratzeak «Estatuko Portuak» erakundearen aurretiazko baimena beharko du.

Sozietateen akzioak eskuratzeari edo besterentzeari ondorioz erakunde batzuek edo estatuaren portu-sistemak gehieneko partaidetza irabazi edo galtzen badute, Ministroen Kontseiluak eman beharko du baimena, Sustapen Ministroak

Ministros, a propuesta del Ministro de Fomento.

Deberán ser aprobadas por el Consejo Rector de Puertos del Estado o por el Consejo de Administración de la Autoridad Portuaria previo informe favorable de Puertos del Estado, las operaciones de adquisición o enajenación de acciones de terceras sociedades que realicen las sociedades participadas en las que Puertos del Estado o la Autoridad Portuaria, respectivamente, posean individualmente o de forma conjunta una posición dominante.

A los únicos efectos de determinación de la existencia de posición dominante, se estará a lo dispuesto por la normativa contable en relación con los grupos de sociedades y la formulación de cuentas anuales consolidadas.

La participación de Puertos del Estado o de sus sociedades dominadas en fundaciones o consorcios deberá ser aprobada por el Consejo Rector.

La participación de la Autoridad Portuaria o de sus sociedades dominadas en fundaciones o consorcios deberá ser aprobada por el Consejo de Administración, previo informe favorable de Puertos del Estado.

La creación de fundaciones estatales y la adquisición de la posición mayoritaria por los organismos portuarios en la dotación fundacional requerirá autorización del Consejo de Ministros.

CAPÍTULO VII

Régimen de los recursos humanos

Artículo 51. Régimen de personal.

El personal de los organismos públicos portuarios quedará vinculado, con carácter general, a su entidad respectiva por una relación sujeta a las normas de derecho laboral que le sean de aplicación, sin perjuicio de que, para las actividades en que proceda, pueda sujetarse a las normas de derecho civil o mercantil.

Las Autoridades Portuarias y Puertos del Estado habrán de ajustar su política de

hala proposatuta.

«Estatuko Portuak» erakundearen Kontseilu Artezkariak edo Portu Agintaritzaren Administrazio Kontseiluak, «Estatuko Portuak» erakundeak alde zuzenetik aldeko txostena eginez, onetsi beharko dituzte hirugarren sozietateen akzioak eskuratu edo besterentzeko eragiketak, halakoak egiten dituztenean partaidetza duten sozietateek, non «Estatuko Portuak» erakundeak edo Portu Agintaritzak, hurrenez hurren, banaka edo modu bateratuan nagusitasun-egoera duten.

Nagusitasun-egoera zehazteko, kontuan hartuko da kontabilitate-arauegiak xedatutakoa, sozietate-taldee eta urteko kontu bateratuak aurkezteari dagokienez.

«Estatuko Portuak» erakundearen edo horren mendeko sozietateen partaidetza fundazio edo partzuergoetan Kontseilu Artezkariak onetsi beharko du.

Portu Agintaritzaren edo horren mendeko sozietateen partaidetza fundazio edo partzuergoetan Administrazio Kontseiluak onetsi beharko du, alde zuzenetik «Estatuko Portuak» erakundeak aldeko txostena eginda.

Ministroen Kontseiluaren baimena beharko da estatuko fundazioak sortzeko eta portu-erakundeek eratze-zuzkiduran nagusitasun-egoera lortzeko.

VII. KAPITULUA

Giza baliabideen araubidea

51. artikulua. Langileen araubidea.

Portuetako erakunde publikoetako langileak euren kasuan kasuko erakundeari lotuko zaie, izaera orokorrarekin, lan-zuzenbideko arauen mende aplikagarri zaizkien harremanen bidez; hori gorabehera, bidezkoa den jardueretan, langile horiek zuzenbide zibileko edo merkataritzako zuzenbideko arauen mende izango dira.

Portu Agintaritzek eta «Estatuko Portuak» erakundeak euren giza baliabideen politika

recursos humanos a los principios, criterios y disposiciones de la política económica y presupuestaria del Gobierno en materia de personal al servicio del sector público estatal, así como a los criterios de actuación y objetivos generales establecidos en el Marco Estratégico.

Las competencias de control en materia de personal que correspondan a los Ministerios de Hacienda y de Administraciones Públicas se ejercerán de forma agregada para el sistema portuario, a través de Puertos del Estado.

El régimen de incompatibilidades del personal de los organismos públicos portuarios se ajustará al establecido con carácter general para el personal de los organismos públicos.

Artículo 52. Retribuciones del personal.

Las Autoridades Portuarias y Puertos del Estado propondrán, para el conjunto del sistema portuario, los criterios generales de las retribuciones de los directores y del personal técnico no sometido a convenio, así como los criterios generales que regirán la negociación colectiva del personal sujeto a convenio, con arreglo a lo dispuesto en las correspondientes leyes de presupuestos para el personal del sector público estatal.

La masa salarial agregada anual será aprobada por los órganos competentes con arreglo a lo que se establezca en las leyes presupuestarias para el personal al servicio del sector público estatal, incluyendo, en su caso, las dotaciones que pudieran derivarse de la modificación del contenido de los puestos de trabajo, las variaciones en las estructuras de personal de los organismos públicos portuarios, la modificación de las condiciones de trabajo, así como del grado de consecución de objetivos y la evolución de los ratios de gestión del sistema, que también serán asignadas de forma agregada para todo el sistema.

Las Autoridades Portuarias y Puertos del Estado negociarán un convenio colectivo que regule las relaciones laborales del personal no directivo ni técnico del conjunto del sistema portuario.

egokitu beharko dute Gobernuaren ekonomia- eta aurrekontu-politikako printzipio, irizpide eta xedapenetara, estatuko sektore publikoaren zerbitzupeko langileen gaian, bai eta Esparru Estrategikoan ezarri jardute-irizpide eta helburu orokorretara ere.

Langileen gaian, Ogasun Ministerioak eta Administrazio Publikoen Ministerioak dituzten kontrol-eskumenak, modu erantsian egikarituko dira portu-sistemari dagokionez, «Estatuko Portuak» erakundearen bidez.

Portuetako erakunde publikoetako langileen bateraezintasunen araubidea bat etorriko da erakunde publikoetako langileei begira izaera orokorrekin ezarritakoarekin.

52. artikulua. Langileen ordainsariak.

Portu Agintaritzek eta «Estatuko Portuak» erakundeak proposatuko dituzte, portu-sistema osoarentzako, ordainsarien irizpide orokorrak, zuzendariei eta hitzarmenaren mende ez dauden langile teknikariei dagokienez, bai eta hitzarmenaren mende dauden langileen negoziazio kolektiboa arautzeko irizpide orokorrak ere, estatuko sektore publikoko langileentzako aurrekontuen kasuan kasuko legeetan xedatutakoaren arabera.

Urtean erantsitako alokairu-masa onetsiko dute organo eskudunek, estatuko sektore publikoaren zerbitzupeko langileentzako aurrekontuen legeetan ezarritakoarekin bat etorri; hala denean, masa horretara zuzkidurak bilduko direla, horiek sor daitezkeenean lanpostuen edukia aldarazteagatik, portuetako erakunde publikoetako langileen egiturak aldatzeagatik, lan-baldintzak aldarazteagatik, bai eta helburu guztietarik lortutakoen mailarengatik eta sistemaren kudeaketa-ratioen bilakaerarengatik ere; zuzkidura horiek ere sistema osoarentzako modu erantsian esleituko dira.

Portu Agintaritzek eta «Estatuko Portuak» erakundeak negoziatuko dute portu-sistema osoari begira, zuzendariak eta teknikariak ez diren langileen lan-harremanak arautzeko hitzarmen

En el ámbito de cada organismo público portuario se negociará un acuerdo de empresa, en materia de productividad y otros aspectos específicos que le sean asignados por el convenio colectivo.

Este acuerdo tendrá carácter normativo y su vigencia será, como máximo, la del convenio colectivo.

Las masas salariales para cada organismo público portuario se acordarán, dentro del agregado del sistema, en el correspondiente plan de empresa, a través de la aplicación del convenio colectivo, y la aprobación del acuerdo de empresa correspondiente al ejercicio en curso, tomando en consideración, especialmente para los conceptos variables de rendimiento y productividad, la evolución de sus ratios de gestión, en particular los correspondientes al importe neto de la cifra de negocios y los resultados del ejercicio sobre plantilla media, así como a la adopción de sistemas de gestión y administración de la entidad que conduzcan a la consecución de los objetivos fijados en los instrumentos de planificación y, en especial, la reducción sostenible de los costes y consiguiente mejora de sus resultados de explotación.

Artículo 53. Estructura de personal.

La estructura de personal de los organismos públicos portuarios responderá a los criterios de actuación, a los objetivos generales de gestión, y a las necesidades de recursos humanos del conjunto del sistema portuario fijados en el Marco Estratégico.

La estructura de personal agregada del sistema portuario y su evolución plurianual será aprobada por los órganos competentes de los Ministerios de Hacienda y de Administraciones Públicas, y será objeto en su caso de revisión anual una vez concluya el proceso de elaboración de los planes de empresa y con carácter previo a su aprobación.

Las estructuras de personal de las Autoridades Portuarias serán acordadas en el Plan de Empresa.

kolektiboa.

Portuetako erakunde publiko bakoitzaren esparruan, enpresa-akordioa negoziatuko da, ekoizgarritasunaren gaian eta hitzarmen kolektiboaren bidez esleitzen zaizkion beste alde jakin batzuetan.

Akordio horrek izaera arauemailea izango du, eta bere indarraldia izango da, gehienez ere, hitzarmen kolektiboarena.

Portuetako erakunde publiko bakoitzarentzako alokairu-masak akordatu dira, sistemako erantsiaren barruan, kasuan kasuko enpresa-planean, hitzarmen kolektiboa aplikatuz, eta aribideko ekitaldiko enpresa-akordioa onetsita. Horretarako, aintzat hartuko dira etekinaren eta ekoizgarritasunaren kontzeptu aldakorrei dagokienez, batik bat, kudeaketa-ratioen bilakaera, bereziki, negozio-zifraren zenbateko garbiari dagozkion ratioena eta batez besteko plantillaren arabera ekitaldiak izandako emaitzena, bai eta erakundearen kudeatu eta administratzeko hartutako sistemak ere, plangintza-tresnetan ezarri helburuak lortzera bideratuta daudenak, eta, horien artean, bereziki, kostuen murrizketa iraunkorra eta horren ondorioz erakundearen ustiatze-emaitzetan hoberantz egitea.

53. artikulua. Langileen egitura.

Portuetako erakunde publikoetako langileen egitura bat etorriko da Esparru Estrategikoan portu-sistema osorako ezarri jardute-irizpideekin, kudeaketako helburu orokorrekin eta giza baliabideen beharrezanekin.

Portu-sistemako langileen egitura erantsia eta horren urte anitzeko bilakaera onetsiko dute Ogasun Ministerioko eta Administrazio Publikoen Ministerioko organo eskudunek, eta, hala denean, urtero berrikusiko da, enpresa-planak egiteko prozesua amaitu ondoren eta plan horiek onetsi aurretik.

Portu Agintaritzetako langileen egiturak Enpresa Planean akordatu dira.

La oferta anual de empleo que se fije de acuerdo con la normativa presupuestaria se distribuirá para cada una de las Autoridades Portuarias según lo acordado en los planes de empresa, teniendo en cuenta el programa plurianual de dotación de las estructuras de los organismos públicos portuarios, elaborados con el mismo horizonte temporal de los planes de empresa.

Corresponde a Puertos del Estado la coordinación de la política de contratación temporal en el conjunto del sistema portuario, en el marco de la normativa del empleo público y de conformidad con lo acordado en los planes de empresa.

Artículo 54. Selección de personal.

La selección del personal se realizará de acuerdo con sistemas basados en los principios de igualdad, mérito y capacidad y mediante convocatoria pública.

Esta última, no será de aplicación para el personal directivo y de confianza.

Puertos del Estado elaborará directrices y procedimientos en materia de selección del personal que garanticen dichos principios, incluyendo los requisitos de titulación exigible para el personal excluido de convenio.

Artículo 55. Funciones de los organismos públicos portuarios.

Corresponden al Consejo Rector de Puertos del Estado y al Consejo de Administración de las Autoridades Portuarias, en los términos previstos en esta ley, las siguientes facultades en relación con el personal del organismo:

- a) Aprobar, a iniciativa del Presidente, la organización de la entidad y sus modificaciones.
- b) Nombrar y separar al personal directivo de la entidad y aprobar su régimen retributivo, a propuesta del Presidente.
- c) Definir las necesidades del personal de la entidad, así como sus modificaciones, aprobar su régimen retributivo, contratar al mismo y cuantos actos sean necesarios

Aurrekontu-arautegiarekin bat etorri urtero ezarri beharreko enplegu-eskaintza Portu Agintaritza bakoitzari begira banatuko da, enpresa-planetan akordatutakoaren arabera, kontuan hartuta portuetako erakunde publikoen egiturak zein izan eta egitura horiek dituzten zuzkiduren urte anitzeko programa, enpresa-planen iraunaldi berberarekin egiten dena.

«Estatuko Portuak» erakundeari dagokio portu-sistema osoan koordinatzea aldi baterako kontratazioaren politika, enplegu publikoari buruzko arautegiaren esparruan eta enpresa-planetan akordatutakoarekin bat etorri.

54. artikulua. Langileak hautatzea.

Langileak hautatuko dira berdintasun-, merezimendu- eta gaitasun-printzipioetan oinarritutako sistemekin bat etorri eta deialdi publikoaren bidez.

Azken hori ez da aplikatuko langile zuzendariei eta konfiantzazko langileei begira.

«Estatuko Portuak» erakundeak printzipio horiek bermatuko dituzten jarraibideak eta prozedurak egingo ditu langileak hautatzeko gaian, horien artera bilduz hitzarmenetik baztertutako langileak zein izan eta langile horiei galdatzen zaien titulazioaren betekizunak.

55. artikulua. Portuetako erakunde publikoen eginkizunak.

«Estatuko Portuak» erakundeko Kontseilu Artezkariak eta Portu Agintaritzetako Administrazio Kontseiluak, lege honetan ezarritakoaren arabera, hurrengo ahalmenak izango dituzte erakundeko langileei dagokienez:

- a) Lehendakariaren ekimena oinarri hartuta, erakundearen antolakuntza eta horren aldarazpenak onestea.
- b) Erakundeko langile zuzendariak izendatzea eta banantzea, eta horien ordainsari-araubidea onestea, Lehendakariak hala proposatuta.
- c) Erakundeko langileen beharrianak zehaztea, bai eta horien aldarazpenak ere, langileen ordainsari-araubidea onestea, langileak kontratatzea eta horretarako

para este fin.

TÍTULO III

La prestación de servicios

CAPÍTULO I

De los servicios

Artículo 56. Servicios prestados en los puertos de interés general.

La actividad portuaria se desarrollará en un marco de libre y leal competencia entre los operadores de servicios en los puertos de interés general, a fin de fomentar el incremento de los tráficos portuarios y la mejora de la competitividad.

Se reconoce la libertad de acceso a la prestación de servicios y al desarrollo de actividades económicas en los puertos de interés general, en los términos establecidos en esta ley.

Las Autoridades Portuarias favorecerán la libre competencia en el ámbito de los puertos que gestionan y adoptarán las medidas necesarias para ello, conforme a lo dispuesto en esta ley.

Puertos del Estado promoverá la competencia en el sistema portuario, pudiendo adoptar las medidas de regulación, ordenación y control que a tal fin sean necesarias, conforme a lo dispuesto en esta ley y sin perjuicio de las competencias atribuidas a otros organismos.

De acuerdo con lo previsto en esta ley, la prestación de servicios en los puertos de interés general se realizará por las Autoridades Portuarias en los casos en que proceda y por los particulares que tengan la correspondiente licencia o autorización, según corresponda.

Los servicios se clasifican en:

- a) Servicios portuarios, que podrán ser generales o básicos.
- b) Servicios comerciales y otras actividades.
- c) Servicio de señalización marítima.

CAPÍTULO II

De los servicios portuarios

SECCIÓN 1.ª CONCEPTO Y CLASES DE

beharrezkoak diren gainerako egintzak gauzatzea.

III. TITULUA

Zerbitzuak ematea

I. KAPITULUA

Zerbitzuak

56. artikulua. Interes orokorreko portuetan emandako zerbitzuak.

Portu-jarduera gauzatuko da interes orokorreko portuetan zerbitzu-eragileen artean, lehia aske eta leialaren esparruan, portu-trafikoak gehitzea eta lehiakortasuna hobetzea suspertzeko helburuarekin.

Interes orokorreko portuetan zerbitzuak ematen hastea eta ekonomia-jarduerak gauzatzea aitortzen da, lege honetan ezarritakoaren arabera.

Portu Agintaritzek lehia askea ahalbidetuko dute eurek kudeatzen dituzten portuen esparruan eta horretarako beharrezkoak diren neurriak hartuko dituzte, lege honetan xedatutakoaren arabera.

«Estatuko Portuak» erakundeak lehia sustatuko du portu-sisteman, horretarako beharrezkoak diren arauketa-, antolaketa- eta kontrol-neurriak hartu ahal izango dituela, lege honetan xedatutakoarekin bat etorri eta beste erakunde batzuei eratzkitako eskumenei kalterik egin gabe.

Lege honetan ezarritakoarekin bat etorri, interes orokorreko portuetan zerbitzuak emango dituzte Portu Agintaritzek, bidezkoa denean, eta kasuan kasuko lizentzia edo baimena duten subjektu pribatuek, kasuaren arabera.

Zerbitzuak modu honetara sailkatzen dira:

- a) Portu-zerbitzuak, orokorrak edo oinarrizkoak izan daitezkeela.
- b) Merkataritza-zerbitzuak eta beste jarduera batzuk.
- c) Itsas seinaleetarako zerbitzua.

II. KAPITULUA

Portu-zerbitzuak

1 ATALA. PORTU-ZERBITZUEN

SERVICIOS PORTUARIOS

Artículo 57. Concepto y clases de servicios portuarios.

Son servicios portuarios las actividades de prestación de interés general que se desarrollan en la zona de servicio de los puertos, siendo necesarias para la correcta explotación de los mismos en condiciones de seguridad, eficacia, eficiencia, calidad, regularidad, continuidad y no discriminación.

Los servicios portuarios se clasifican en servicios generales del puerto, cuya prestación se reserva a la Autoridad Portuaria, y servicios básicos, que se prestan en régimen de competencia, sin perjuicio de lo previsto en esta ley para el servicio de practicaaje.

SECCIÓN 2.ª LOS SERVICIOS PORTUARIOS GENERALES

Artículo 58. Concepto y clases de servicios generales

Son servicios generales del puerto aquellos servicios comunes de titularidad de la Autoridad Portuaria de los que se benefician los usuarios del puerto sin necesidad de solicitud.

Las Autoridades Portuarias prestarán en la zona de servicio del puerto los siguientes servicios generales:

- a) El servicio de ordenación, coordinación y control del tráfico portuario, tanto marítimo como terrestre.
- b) El servicio de coordinación y control de las operaciones asociadas a los servicios portuarios básicos, comerciales y otras actividades.
- c) Los servicios de señalización, balizamiento y otras ayudas a la navegación que sirvan de aproximación y acceso del buque al puerto, así como su balizamiento interior.

La instalación y el mantenimiento del balizamiento de las instalaciones otorgadas en concesión o autorización, incluidas las destinadas a cultivos marinos y emisarios submarinos, serán realizados por el titular de las mismas o responsable de la actividad y a su costa, de acuerdo con el

KONTZEPTUA ETA MOTAK

57. artikulua. Portu-zerbitzuen kontzeptua eta motak.

Portu-zerbitzuak dira interes orokorreko emate-jarduerak, portuetako zerbitzuegunetan gauzatzen direnak, beharrezkoak izanik horiek modu egokian ustia daitezen, segurtasun, eragingarritasun, efizientzia, kalitate, erregulartasun, jarraitutasun eta bereizkeriarik gabeko baldintzetan.

Portu-zerbitzuak sailkatzen dira portuko zerbitzu orokorretan, Portu Agintaritzei erreserbatzen zaiela halakoak ematea, eta oinarrizko zerbitzuetan, lehia-araubidean ematen direnak, lege honetan praktikaje-zerbitzuari begira ezarritakoari kalterik egin gabe.

2. ATALA. PORTUKO ZERBITZU OROKORRAK

58. artikulua. Zerbitzu orokorren kontzeptua eta motak.

Portuko zerbitzu orokorrak dira Portu Agintaritzaren titulartasuneko zerbitzu arruntak, horien onuradun direla portuko erabiltzaileak, inolako eskabiderik egin beharrik gabe.

Portu Agintaritzek portuko zerbitzuegunean emango dituzte hurrengo zerbitzu orokorrak:

- a) Portuko trafikoa, itsasokoa nahiz lehorrekoa, antolatu, koordinatu eta kontrolatzeko zerbitzua.
- b) Portuko oinarrizko eta merkataritzako zerbitzuekin eta beste jarduera batzuekin lotura duten eragiketak koordinatu eta kontrolatzeko zerbitzua.
- c) Seinaleetarako, balizamendurako eta nabigaziorako lagungarri diren beste zerbitzu batzuk, ontzia portura hurreratu nahiz sartzeko, bai eta portuko barne balizamendua ere.

Emakidaren edo baimenaren bidez emandako instalazioetan, horien artean direla itsas lugintzara eta itsaspeko hustubideetara destinatutakoak, balizamendua ezarri eta mantenduko du instalazio horien titularrak edo jardueraren arduradunak bere kontura, Portu

proyecto de ejecución aprobado por la Autoridad Portuaria.

d) Los servicios de vigilancia, seguridad y policía en las zonas comunes, sin perjuicio de las competencias que correspondan a otras Administraciones.

e) El servicio de alumbrado de las zonas comunes.

f) El servicio de limpieza de las zonas comunes de tierra y de agua.

No se incluyen en este servicio la limpieza de muelles y explanadas como consecuencia de las operaciones de depósito y manipulación de mercancías, ni la de los derrames y vertidos marinos contaminantes competencia de la Administración marítima.

g) Los servicios de prevención y control de emergencias, en los términos establecidos por la normativa sobre Protección Civil, mercancías peligrosas y demás normativa aplicable, en colaboración con las Administraciones competentes sobre protección civil, prevención y extinción de incendios, salvamento y lucha contra la contaminación.

Artículo 59. Prestación de servicios generales.

Los servicios generales serán gestionados por la Autoridad Portuaria.

Estos servicios serán prestados, de acuerdo con las normas y criterios técnicos previstos en el Reglamento de Explotación y Policía y en las ordenanzas del puerto, por personal de la Autoridad Portuaria, sin perjuicio de que puedan encomendarse a terceros en determinados casos cuando no se ponga en riesgo la seguridad o no impliquen ejercicio de autoridad.

SECCIÓN 3.ª LOS SERVICIOS PORTUARIOS BÁSICOS

Artículo 60. Concepto y clases de servicios básicos.

Son servicios básicos aquellas actividades comerciales que permiten la realización de las operaciones de tráfico portuario.

Los servicios básicos son los siguientes:

a) Servicio de practicaje.

Agintaritzak onetsitako betearazpen-proiektuarekin bat etorritz.

d) Gune erkideetan zaintza-, segurtasun- eta polizia-zerbitzuak, beste Administrazio batzuei dagozkien eskumenei kalterik egin gabe.

e) Gune erkideetako argiztapen-zerbitzua.

f) Lehorreko eta uretako gune erkideak garbitzeko zerbitzua.

Zerbitzu horretara ez dira biltzen moilen eta zabaldegien garbiketa, merkatu-gaiak bertan utzi eta manipulatzearen ondorioz, ezta itsasora egindako isuri eta isurketa kutsagarriak ere, halakoak Itsas Administrazioaren eskumenekoak direnean.

g) Larrialdiak prebenitu eta kontrolatzeko zerbitzuak, Babes Zibilari buruzko arautegian, merkatu-gai arriskutsuei buruzko arautegian eta aplikagarri den gainerako arautegian ezarritakoaren arabera, elkarlanean arituz babes zibilari, suteak prebenitu eta itzaltzeari, salbamenduari eta kutsaduraren aurka borrokatzeari begira eskudunak diren Administrazioekin.

59. artikulua. Zerbitzu orokorrak ematea.

Portu Agintaritzak kudeatuko ditu zerbitzu orokorrak.

Zerbitzu horiek emango dira Ustiatze eta Polizia Erregelamenduan eta portu-ordenantzetan jasotako arau eta irizpide teknikoekin bat etorritz; hori gorabehera, zenbait kasutan zerbitzu horiek hirugarrenei eratziki dakizkieke, baldin eta segurtasuna arriskuan jartzen ez bada edo agintaritzak gauzatzen ez bada.

3. ATALA. OINARRIZKO PORTU-ZERBITZUAK

60. artikulua. Oinarrizko zerbitzuen kontzeptua eta motak.

Oinarrizko zerbitzuak dira portuko trafikoaren eragiketarako gauzatzea ahalbidetzen duten merkataritza-jarduerak.

Hurrengoak dira oinarrizko zerbitzuak:

a) Praktikaje-zerbitzua.

b) Servicios técnico-náuticos:

- 1.º Remolque portuario.
- 2.º Amarre y desamarre de buques.

c) Servicios al pasaje:

- 1.º Embarque y desembarque de pasajeros.
- 2.º Carga y descarga de equipajes y vehículos en régimen de pasaje.

d) Servicios de manipulación y transporte de mercancías:

- 1.º Carga, estiba, descarga, desestiba y transbordo de mercancías.
- 2.º Depósito.
- 3.º Transporte horizontal.

A los efectos de esta ley, estos servicios sólo tendrán la condición de servicios básicos cuando estén asociados directamente a las operaciones de carga y descarga de buques o a las operaciones directamente vinculadas al intercambio entre medios de transporte o al tránsito marítimo, siempre que se desarrollen en los buques, o íntegramente en las zonas que, de acuerdo con el Plan de Utilización de Espacios Portuarios, se encuentren destinadas a los usos comerciales a que se refiere el artículo 94.1.a) de esta ley de conformidad con lo previsto en el artículo 85.1.1.4 de la misma, así como en aquellas otras a las que se refiere el Real Decreto-ley 2/1986.

e) Servicios de recepción de desechos generados por buques:

- 1.º Recepción de desechos sólidos.
- 2.º Recepción de desechos líquidos.

El Ministro de Fomento, a propuesta de Puertos del Estado, podrá ampliar la anterior relación con otros servicios cuya prestación se considere necesario garantizar por su especial relevancia para la seguridad, continuidad y competitividad de las operaciones portuarias.

Estos servicios básicos estarán sujetos a las obligaciones de servicio público previstas en esta ley, que se desarrollarán en los correspondientes pliegos reguladores de los servicios, con la finalidad de garantizar su prestación en condiciones de seguridad, continuidad y

b) Zerbitzu tekniko-nautikoak:

1. Portu-atoia.
2. Ontziak amarratzea eta desamarratzea.

c) Bidaiarientzako zerbitzuak:

1. Bidaiariak ontziratu eta lehorreratzea.
2. Bagajeak eta bidaia-araubideko ibilgailuak kargatu eta deskargatzea.

d) Merkatu-gaiak manipulatu eta garraiatzeko zerbitzuak:

1. Merkatu-gaiak kargatu, sartu, deskargatu, atera eta ontzitik aldatzea.
2. Gordailua.
3. Garraio horizontala.

Lege honen ondoretarako, zerbitzu horiek oinarrizko zerbitzuen izaera izango dute soil-soilik zuzenean lotzen zaizkienean ontzietako karga- eta deskarga-eragiketei, edo garraiobideen arteko aldaketei edo itsasoko igarobideari zuzenean lotutako eragiketei, betiere, eragiketa horiek gauzatzen badira ontzietan, edo, Portu Eremuak Erabiltzeko Planarekin bat etorritz, oso-osoan gauzatzen badira lege honen 94.1.a) artikuluko merkataritza-erabileretara destinatutako guneetan, lege honetako 85.1.1.4 artikuluan jasotakoaren arabera, bai eta 2/1986 Errege Lege-dekretuak aipatu gainerako guneetan ere.

e) Ontziek sortutako zaborrak jasotzeko zerbitzuak:

1. Zabor solidoak jasotzea.
2. Zabor likidoak jasotzea.

Sustapen Ministroak, «Estatuko Portuak» erakundeak hala proposatuta, aurreko zerrenda hori luzatu ahal izango du beste zerbitzu batzuekin, halakoak ematea bermatzea beharrezkotzat jotzen denean portu-eragiketen segurtasun, jarraitutasun eta lehiakortasunerako.

Oinarrizko zerbitzu horiek izango dira lege honetan zerbitzu publiko gisa jaso betebeharren mende, betebeharrak horiek garatuko direla zerbitzuen kasuan kasuko agiri arauemailetan, zerbitzu horien ematea bermatzeko, segurtasun-, jarraitutasun- eta erregulartasun-

regularidad, cobertura, calidad y precio razonables, así como respeto al medio ambiente.

Las Autoridades Portuarias deberán adoptar las medidas precisas para garantizar una adecuada cobertura de las necesidades de servicios básicos en el puerto.

A tal fin, cuando lo requieran las circunstancias, por ausencia o insuficiencia de iniciativa privada, las Autoridades Portuarias podrán asumir la prestación del servicio, directa o indirectamente por cualquier procedimiento reconocido en las leyes, o concurrir a la prestación del mismo con la iniciativa privada.

Las Autoridades Portuarias prestarán el servicio de acuerdo con las condiciones de los pliegos reguladores del servicio y por un plazo limitado, no superior a cinco años, salvo que subsistan las circunstancias que hayan motivado la asunción de la prestación, debiendo exigir en contraprestación las correspondientes tarifas de acuerdo con lo previsto en el artículo 76.1.h) de esta ley, que se someterán al mismo régimen jurídico que los precios privados por servicios comerciales prestados por las Autoridades Portuarias.

La Autoridad Portuaria autorizará, cuando proceda, la autoprestación y la integración de servicios, en los términos y con las condiciones previstas en la sección 4.^a de este título.

La Autoridad Portuaria, en caso de impago del servicio, podrá autorizar a los prestadores la suspensión temporal del servicio, hasta que se efectúe el pago o se garantice suficientemente la deuda que generó la suspensión.

Artículo 61. Obligaciones de servicio público.

Son obligaciones de servicio público, de necesaria aceptación por todos los prestadores de servicios básicos en los términos en que se concreten en sus respectivos títulos habilitantes, las siguientes:

a) Mantener la continuidad y regularidad de

baldintzetan, arrazoizko estaldura, kalitate eta prezioarekin, bai eta ingurumena errespetatuta ere.

Portu Agintaritzek neurri egokiak hartu beharko dituzte portuan oinarrizko zerbitzuetarako beharrianak modu egokian estaltzea bermatzeko.

Horretarako, inguruabarrek hala behar dutenean, ekimen pribaturik ez egoteagatik edo hori behar adinako ez izateagatik, Portu Agintaritzek zerbitzu hori eman ahal izango dute, zuzenean edo zeharka, legeetan aitortutako edozein prozeduraren bidez, edo ekimen pribatuarekin batera lehiatuz.

Portu Agintaritzek zerbitzua emango dute zerbitzuaren agiri arauemailetako baldintzekin bat etorritik eta iraupen mugatuarekin, bost urtetik gorakoa izango ez den epean, salbu eta zerbitzu hori ematea eragin zuten inguruabarrek jarraitzen dutenean. Portu Agintaritzek kontraprestazio gisa kasuan kasuko tarifak galdutako dituzte, lege honetako 76.1.h) artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik; tarifa horiek izango dira Portu Agintaritzek merkataritza-zerbitzuak ematearen ondorioz ezartzen diren prezio pribatuen araubide beraren mende.

Portu Agintaritzak, bidezkoa denean, baimenduko du zerbitzuen autoprestazioa eta integrazioa, titulu honetako 4. atalean jaso modu eta baldintzetan.

Portu Agintaritzak, zerbitzuak ordaintzen ez badira, zerbitzu-emaleei baimendu ahal izango die zerbitzua aldi baterako etetea, ordainketa egin arte edo etetea eragin zuen zorra behar adina bermatu arte.

61. artikulua. Zerbitzu publikoko betebeharrak.

Hurrengoak zerbitzu publikoko betebeharrak dira, oinarrizko zerbitzuak ematen dituzten guztiek nahitaez onartu behar dituztenak, euren kasuan kasuko ahalbidetze-tituluetan zehaztutakoaren arabera:

a) Zerbitzuen jarraitutasunari eta

los servicios en función de las características de la demanda, salvo causa de fuerza mayor, haciendo frente a las circunstancias adversas que puedan producirse con las medidas exigibles a un empresario diligente.

Para garantizar la continuidad en la prestación del servicio, las Autoridades Portuarias podrán establecer servicios mínimos de carácter obligatorio.

b) Cooperar con la Autoridad Portuaria y la Administración marítima y, en su caso, con otros prestadores del servicio, en labores de salvamento, extinción de incendios y lucha contra la contaminación, cuando sean necesarias, así como en la prevención y control de emergencias.

Asimismo, informar de aquellas incidencias que puedan afectar a cualquiera de estas materias o a la seguridad marítima en general.

c) Someterse a la potestad tarifaria, cuando proceda, en las condiciones establecidas en las prescripciones particulares por las que se rige el título habilitante.

d) Colaborar en la formación práctica en la prestación del servicio, en el ámbito del puerto en el que desarrolla su actividad.

Los pliegos reguladores concretarán las obligaciones establecidas en los párrafos anteriores, de acuerdo con lo previsto en esta ley o en cualquier otra norma que sea de aplicación, haciéndolos acordes con la iniciativa empresarial y la competencia entre servicios y las necesidades particulares de los servicios prestados en cada puerto.

Las obligaciones de servicio público se aplicarán de forma que sus efectos sean neutrales en relación con la competencia entre prestadores de los servicios básicos.

Artículo 62. Utilización de los servicios básicos.

Los servicios básicos se prestarán a solicitud de los usuarios por las empresas autorizadas.

No obstante, la utilización del servicio de

erregulartasunari eustea, eskariaren ezaugarrien arabera, salbu eta ezinbesteko kasua dagoenean, gerta ahal diren aurkako inguruabarrei aurre eginez, enpresaburu arretatsu bati galda dakizkiokeen neurriak hartuz.

Zerbitzu-ematearen jarraitutasuna bermatzeko, Portu Agintaritzek gutxieneko zerbitzuak ezarri ahal izango dituzte, nahitaezko izaerarekin.

b) Lankidetzan aritzea Portu Agintaritzarekin eta Itsas Administrazioarekin eta, hala denean, beste zerbitzu-emaile batzuekin ere, salbamenduko, suteak itzaltzeko eta kutsaduraren aurka borrokatzeko jardueretan, halakoak beharrezkoak direnean, bai eta larrialdiak prebenitu eta kontrolatzeari dagokionez ere.

Era beran, gai horietarik edozein edo, orokorrean, itsas segurtasuna uki dezaketen inguruabarren berri ematea.

c) Bidezkoa denean, tarifa-ahalaren mende izatea, ahalbidetze-titulua arautzen duten xedapen berezietako baldintzetan.

d) Zerbitzua emateari dagokionez, prestakuntza praktikoan elkarlanean aritzea, jarduera gauzatzeko portu-esparruan.

Agiri arauemaileek zehaztuko dituzte aurreko paragrafoetan ezarritako betebeharrak, lege honetan edo aplikagarri diren arauetarik edozeinetan jasotakoarekin bat etorritz, bateragarri eginez enpresa-ekimenarekin nahiz zerbitzuen arteko lehiarekin eta portu bakoitzean emandako zerbitzuen beharizan zehatzekin.

Zerbitzu publikoaren betebeharrak aplikatuko dira euren ondoreak neutralak izanik oinarritzko zerbitzu-emaileen arteko lehiari dagokionez.

62. artikulua. Oinarritzko zerbitzuak erabiltzea.

Baimendutako enpresek emango dituzte oinarritzko zerbitzuak, erabiltzaileek eskatzen dituztenean.

Hala ere, praktikaje-zerbitzuaren erabilera

practicaje será obligatoria cuando así lo determine la Administración marítima conforme a lo previsto en la normativa aplicable.

Además, el Reglamento de Explotación y Policía deberá establecer, por razones de seguridad marítima, el uso obligatorio de otros servicios técnico-náuticos en función de las condiciones y características de las infraestructuras portuarias, del tamaño y tipo de buque y de la naturaleza de la carga transportada, así como de las condiciones océano-meteorológicas.

Asimismo, el servicio de recepción de desechos generados por buques será de uso obligatorio, salvo en los supuestos previstos en la normativa aplicable.

Las ordenanzas portuarias aprobadas por las Autoridades Portuarias deberán establecer, por razones de operativa y de seguridad, normas complementarias y condiciones específicas de utilización de los servicios básicos, así como el ámbito geográfico al que se extiendan.

Cuando la utilización del servicio no sea obligatoria, las Autoridades Portuarias podrán imponer el uso de los servicios técnico-náuticos si por circunstancias extraordinarias consideran que está en riesgo el funcionamiento, la operatividad o la seguridad del puerto.

A su vez, en dichas circunstancias y por razones de seguridad marítima, la Capitanía Marítima podrá declarar la obligatoriedad de dichos servicios.

Artículo 63. Títulos administrativos habilitantes para la prestación de servicios básicos.

La prestación de servicios básicos requerirá la obtención de la correspondiente licencia de la Autoridad Portuaria.

Las licencias podrán ser de carácter general o específico.

Las licencias de carácter general habilitarán para la prestación del conjunto de los servicios incluidos en cada uno de los párrafos c), d) o e) del artículo 60.2, y las de carácter específico se otorgarán

nahitaezkoa izango da, Itsas Administrazioak hala ezartzen duenean, arautegi aplikagarrian jasotakoarekin bat etorritik.

Halaber, Ustiatze eta Polizia Erregelamenduak ezarri beharko du, itsas segurtasuneko arrazoiengatik, beste zerbitzu tekniko-nautiko batzuk, portuko azpiegituren baldintza eta ezaugarrien arabera, ontziaren tamaina eta motaren arabera eta garraiatutako zamaren arabera, bai eta baldintza ozeano-meteorologikoen arabera ere.

Era berean, ontziek sortutako zaborrak jasotzeko zerbitzua nahitaez erabili beharko da, arautegi aplikagarrian jasotako kasuetan izan ezik.

Portu Agintaritzek onetsitako portu-ordenantzek ezarri beharko dituzte, arrazoi operatiboengatik eta segurtasun-arrazoiengatik, oinarritzko zerbitzuak erabiltzeko arau osagarriak eta baldintza bereziak, eta zehaztu beharko dute halakoak zein geografia-esparrutara hedatzen diren.

Zerbitzuaren erabilera ez denean nahitaezkoa, Portu Agintaritzek zerbitzu tekniko-nautikoen erabilera ezarri ahal izango dute, aparteko inguruabarrak direla eta, uste badute portuaren jardunbidea, operatibitatea edo segurtasuna arriskuan dagoela.

Gainera, halako inguruabarretan eta itsasoko segurtasuneko arrazoiengatik, Itsas Kapitaintzak zerbitzu horien nahitaezkotasuna adierazi ahal izango du.

63. artikulua. Oinarritzko zerbitzuak ematea ahalbidetzen duten administrazio-tituluak.

Oinarritzko zerbitzuak eman ahal izateko Portu Agintaritzaren kasuan kasuko lizentzia lortu beharko da.

Lizentziek izaera orokorra edo berezia izan dezakete.

Izaera orokorreko lizentziek ahalbidetuko dute 60.2 artikuluko c), d) edo e) paragrafoetara bildutako zerbitzu guztiak ematea, eta izaera bereziko lizentziak emango dira lizentzia horietan aipatu

para cada uno de los servicios relacionados en aquéllas.

Las licencias de los servicios de practica je y técnico-náuticos serán siempre de carácter específico.

Asimismo, las licencias para la prestación de servicios al pasaje y de manipulación y transporte de mercancías podrán otorgarse por tipo de tráfico o de carga.

Salvo cuando esté limitado el número de prestadores, la licencia se otorgará con carácter reglado, previa acreditación del cumplimiento por el solicitante de las condiciones y requisitos previstos en esta ley, en el pliego regulador y en las prescripciones particulares del servicio.

Artículo 64. Régimen de acceso a la prestación de servicios básicos

Podrán ser titulares de licencias las personas físicas o jurídicas, españolas, de otros países de la Unión Europea o de terceros países, condicionadas estas últimas a la prueba de reciprocidad, salvo en los supuestos en que los compromisos de la Unión Europea con la Organización Mundial del Comercio no exija dicho requisito, que tengan plena capacidad de obrar, no estén incurso s en causa de incompatibilidad y acrediten, en los términos previstos en el pliego regulador del servicio, el cumplimiento de los siguientes requisitos:

- a) Solvencia económica, técnica y profesional para hacer frente a las obligaciones resultantes del servicio, que se determine en el pliego regulador de cada servicio.
- b) Estar al corriente del cumplimiento de las obligaciones de carácter fiscal, laboral y social exigidas por la legislación vigente. Se considerará que las empresas se encuentran al corriente de las obligaciones de carácter fiscal, cuando concurren las circunstancias previstas en el apartado 1 del artículo 13 del Real Decreto 1098/2001, de 12 de octubre, por el que se aprueba el Reglamento General de la Ley de Contratos de las Administraciones

zerbitzu bakoitzeko.

Praktikaje-zerbitzuko eta zerbitzu tekniko-nautikoko lizentziek izaera berezia izango dute beti.

Era berean, bidaiariei zerbitzuak emateko eta merkatu-gaiak manipulatu eta garraiatzeko lizentziak eman ahal izango dira trafiko- edo zama-motaren arabera.

Zerbitzu-emaileen kopurua mugatuta dagoenean izan ezik, lizentzia arau-izaerarekin emango da, alde z aurretik egiaztatuta eskatzaileak lege honetako, agiri arauemaileko eta zerbitzuaren xedapen berezietako baldintza eta betekizunak gauzatzen dituela.

64. artikulua. Oinarritzko zerbitzuak ematen hasteko araubidea

Lizentzien titularrak izan daitezke pertsona fisikoak nahiz juridikoak, halakoak espainiarrak, Europar Batasuneko beste herrialde batzuetakoak edo hirugarren herrialdeetakoak direnean; azken kasu horretan, elkarrekotasun-proba gauzatu beharko da, salbu eta Europar Batasunak Munduko Merkataritza Erakundearekin dituen konpromisoen ondorioz betekizun hori galdatzen ez denean. Lizentzien titularrek jarduteko gaitasun osoa izan beharko dute, ez dute izango bateraezintasun arrazoirik eta egiaztatu beharko dute, zerbitzuaren agiri arauemailean jasotakoaren arabera, hurrengo betekizunak dituztela:

- a) Zerbitzuak eratorri betebeharrei aurre egiteko ekonomia-, teknika- eta lanbide-kaudimena izatea, zerbitzu bakoitzaren agiri arauemailean zehaztuko dena.
- b) Indarreko legeriak galdatutako tributu-, lan- eta gizarte-izaerako betebeharrak gauzatzeari dagokionez egunean izatea. Ulertuko da enpresak egunean daudela, tributu-izaerako betebeharrei dagokienez, urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuak, Administrazio Publikoen Kontratuei buruzko Legearen Erregelamendu Orokorra onestekoak, 13. artikulua ren 1. paragrafoan jaso inguruabarrak daudenean.

Públicas.

La acreditación del cumplimiento de dichas circunstancias se efectuará de conformidad con lo regulado en el apartado 2 de dicho artículo.

c) Cumplimiento de las condiciones específicas necesarias para la adecuada prestación del servicio, de acuerdo con lo previsto en esta ley y demás normativa aplicable.

Las condiciones de acceso a la prestación que se fijen en los pliegos deberán ser transparentes, no discriminatorias, objetivas, adecuadas y proporcionadas, y deberán garantizar los siguientes objetivos:

- a) La adecuada prestación del servicio de acuerdo con los requisitos técnicos, ambientales, de seguridad y calidad que se establezcan.
- b) El desarrollo de la planificación portuaria.
- c) El comportamiento competitivo de los operadores del servicio.
- d) La protección de los usuarios.
- e) La protección de los intereses de la Autoridad Portuaria y de la seguridad pública.

Entre los requisitos técnicos para la prestación del servicio se incluirán medios humanos y materiales suficientes que, permitiendo desarrollar las operaciones unitarias habituales, tanto las más simples como las más complejas, en condiciones de seguridad, calidad, continuidad y regularidad en función de las características de la demanda, no impidan la competencia entre operadores.

La prestación de servicios básicos se regirá por el sistema de libre competencia, salvo lo establecido en el apartado siguiente.

La Autoridad Portuaria, de oficio, podrá limitar en cada puerto que gestione el número de prestadores de cada servicio por razones objetivas derivadas de la disponibilidad de espacios, de la capacidad de las instalaciones, de la seguridad o de normas medioambientales.

Inguruabar horiek betetzen direla egiaztatuko da artikuluko horretako 2. paragrafoan araututakoarekin bat etorritik.

c) Zerbitzua modu egokian emateko beharrezkoak diren baldintza bereziak betetzea, lege honen eta aplikagarri den gainerako arautegiaren edukiarekin bat etorritik.

Zerbitzuak ematen hasi ahal izateko, agiritan ezartzen diren baldintzak izan beharko dira gardenak, bereizkeriarik gabekoak, objektiboak, egokiak eta proportzionalak; halaber baldintza horiek hurrengo helburuak bermatu beharko dituzte:

- a) Zerbitzua modu egokian ematea, ezarriko diren teknika-, ingurumen-, segurtasun- eta kalitate-betekizunekin bat etorritik.
- b) Portu-plangintza gauzatzea.
- c) Zerbitzuko eragileen jokabidea lehiakorra izatea.
- d) Erabiltzaileak babestea.
- e) Portu Agintaritzaren eta segurtasun publikoaren interesak babestea.

Zerbitzua emateko betekizun teknikoaren artean izango dira behar adinako giza baliabideak eta baliabide materialak, ahalbidetuko dutenak ohiko banakako eragiketarako, sinpleenak nahiz zailenak, garatzea segurtasun-, kalitate-, jarraitutasun- eta erregularitasun-baldintzetan, eskariaren ezaugarrien arabera, eragileen arteko lehia eragotzi gabe.

Oinarrizko zerbitzuen ematea lehia askearen arabera arautuko da, hurrengo paragrafoan ezarritakoari dagokionez izan ezik.

Portu Agintaritzak, ofizioz, kudeatzen duen portu bakoitzean mugatu ahal izango du zerbitzu bakoitzeko zerbitzu-ematearen kopurua, eremu erabilgarriak izatearen inguruan, instalazioen edukieran, segurtasunean edo ingurumen-arauetan oinarritutako arrazoi objektiboengatik,

En los servicios al pasaje y de manipulación y transporte de mercancías, las anteriores limitaciones podrán aplicarse por tipo de tráfico o carga.

El acuerdo de limitación, que incluirá la determinación del número de prestadores, se adoptará por el Consejo de Administración de la Autoridad Portuaria, previa consulta al Comité de Servicios Portuarios Básicos e informe de Puertos del Estado, y podrá afectar a toda la zona de servicio del puerto o a una parte de la misma.

La determinación del número de prestadores deberá realizarse considerando el mayor número posible de prestadores que permitan las circunstancias.

El acuerdo de limitación se publicará en el «Boletín Oficial del Estado».

Cuando la causa de la limitación sea la seguridad marítima, Puertos del Estado solicitará informe a la Dirección General de la Marina Mercante, que tendrá carácter vinculante, y se entenderá en sentido favorable si transcurre el plazo de 15 días sin que sea emitido de forma expresa.

Estas licencias se otorgarán por concurso de acuerdo con lo establecido en el artículo 67.3 de esta ley.

En estos casos las prescripciones técnicas del servicio fijarán un plazo de vigencia más breve que el que correspondería si se prestase el servicio en régimen de libre concurrencia.

En la medida en que se alteren las causas que la motivaron, dicha limitación será revisable total o parcialmente por la Autoridad Portuaria, previa consulta al Comité de Servicios Portuarios Básicos e informe de Puertos del Estado, quien solicitará informe vinculante a la Dirección General de la Marina Mercante cuando la causa de la limitación haya sido la seguridad marítima que se entenderá en sentido favorable si transcurre el plazo de 15 días sin que sea emitido de forma expresa.

Bidaiarientzako eta merkatu-gaiak manipulatu eta garraiatzeko zerbitzuetan, muga horiek aplikatu ahal izango dira edozein trafiko- edo zama-motarengatik.

Portu Agintaritzaren Administrazio Kontseiluak hartuko du mugatze-erabakia, zerbitzu-emaileen kopurua ezarriko duena, aldez aurretik Oinarrizko Portu Zerbitzuen Komitea kontsultatuta, eta «Estatuko Portuak» erakundeak txostena eginda; erabaki horrek ukitu ahal izango du portuko zerbitzu-gune osoa edo horren zati bat.

Zerbitzu-emaileen kopurua ezarri beharko da kontuan hartuz inguruabarrek ahalbidetzen duten zerbitzu-emaile gehien.

Mugatze-erabakia «Estatuko Aldizkari Ofizialean» argitaratuko da.

Mugatzearen arrazoia itsas segurtasuna denean, «Estatuko Portuak» erakundeak txostena eskatu dio Merkataritzako Marinaren Zuzendaritza Nagusiari; txosten horrek izaera loteslea izango du, eta ulertuko da aldekoa dela, baldin eta 15 eguneko epea igaro ondoren esanbidez ematen ez bada.

Lizentzia horiek lehiaketa bidez emango dira, lege honen 67.3 artikuluan ezarritakoarekin bat etorrituz.

Kasu horietan, zerbitzuaren xedapen teknikoek ezarriko dute zerbitzua lehia askearen araubidean ematen denean baino indarraldi laburragoa.

Mugatzea eragin zuten arrazoiak aldatzen diren neurrian, Portu Agintaritzak kasuan kasuko mugatzea oso-osoan edo zati batean berrikusiko du, aldez aurretik Oinarrizko Portu Zerbitzuen Komitea kontsultatuta, eta «Estatuko Portuak» erakundeak txostena eginda. Mugatzearen arrazoia itsas segurtasuna izan denean, Portu Agintaritzak txosten loteslea eskatuko dio Merkataritzako Marinaren Zuzendaritza Nagusiari; ulertuko da txosten hori aldekoa dela, baldin eta 15 eguneko epea igaro ondoren, esanbidez ematen ez bada.

Asimismo se solicitará informe a la autoridad ambiental competente cuando la causa de la limitación derive de normas medioambientales.

Cuando la autoridad portuaria sea prestadora del mismo servicio o servicios o de un servicio o servicios similares al objeto de limitación, o ejerza un control directo o indirecto sobre el prestador del mismo servicio o servicios o de un servicio o servicios similares en ese puerto, el acuerdo de limitación o su revisión será adoptado por el Consejo Rector de Puertos del Estado.

No obstante, aunque el número de prestadores esté limitado, el titular de una concesión demanial cuyo objeto sea la prestación de servicios al pasaje o de manipulación y transporte de mercancías, tendrá derecho a la obtención de una de las licencias para la prestación de dicho servicio, siempre que cumpla las condiciones exigidas para ello, que estarán restringidas al ámbito del dominio público en concesión.

